

I. Bigarren Irakasleen Kidegoa Hezkuntzako

ESPEZIALITATEAK	MINUSBALIATUEN ERRESERBA		SARBIDE IREKIA		SARTZEKO PROZEDURA	
	Gazt.	Eusk.	Gazt.	Eusk.	Gazt.	Eusk.
Enpresen administrazioa	-	1	-	1	-	2
Biologia eta Geologia	1	1	11	6	12	7
Marrazketa	1	1	2	2	3	3
Ekonomia	-	-	-	1	-	1
Gorputz Hezkuntza	-	-	5	3	5	3
Filosofia	1	1	7	3	8	4
Fisika eta Kimika	1	1	2	1	3	2
Lanerako Prestakuntza eta Orientazioa	1	-	2	-	3	-
Frantsesa	1	1	5	3	6	4
Geografia eta Historia	1	1	17	8	18	9
Ingelesa	1	1	13	14	14	15
Gizartean eta komunitatean esku hartzea- Latina	1	-	1	1	2	1
Gaztelania eta Literatura	2	1	27	10	29	11
Euskal Hizkuntza eta Literatura	-	2	-	16	-	18
Matematika	2	1	26	12	28	13
Musika	-	1	-	3	-	4
Fabrikazio mekanikoaren antolaketa eta proiektuak	-	-	3	1	4	1
Ibilgailuen mantentze-lanen antolaketa eta prozesuak	-	-	1	-	1	-
Energia sistemen antolaketa eta proiektuak	-	-	1	-	2	-
Diagnostiko klinikoaren prozesuak eta produktu ortoprotesikoak	-	-	1	-	1	-
Nekazaritzako ekoizpeneko prozesuak	-	-	1	-	1	-
Osasun prozesuak	-	-	1	-	1	-
Psikologia eta Pedagogia	2	-	9	4	11	4
Sistema elektronikoak	-	-	1	-	1	-
Sistema elektrotekniko eta automatikoak- Teknologia	-	-	11	8	11	8
GUZTIRA	15	13	148	98	165	111

II.–Lanbide Heziketako Irakasle Teknikoen Kidegoa

ESPEZIALITATEAK	MINUSBALIATUEN ERRESERBA		SARBIDE IREKIA	
	GAZT.	EUSK.	GAZT.	EUSK.
Ekipo elektronikoak	-	-	2	-
Arotz-lanak eta altzariak egin eta instalatzea	-	-	2	-
Instalazio elektroteknikoak	-	-	7	-
Makinen mekanizazioa eta mantentze-lanak	-	-	5	-
Elikagaien elaborazioko lanak eta ekipoak	-	-	2	-
Nekazaritzako ekoizpeneko lanak eta ekipoak	-	-	2	-
Diagnostiko kliniko eta ortoprotesikoen prozedurak ...	-	-	2	-
Osasun eta laguntza prozedurak	-	-	1	-
Administrazio kudeaketako prozesuak	1	-	3	2
Soldadura	-	-	4	-
GUZTIRA	1	-	30	2

III.–Hizkuntza Eskola Ofizialetako Irakasleen Kidegoa

ESPEZIALITATEAK	MINUSBALIATUEN ERRESERBA		SARBIDE IREKIA	
	GAZT.	EUSK.	GAZT.	EUSK.
Frantsesa	-	-	2	-
Ingelesa	1	-	3	-
Italiera	-	-	1	-
GUZTIRA	1	-	6	-

Lanpostuen ezaugarriei dagokienez, Bigarren Hezkuntzako Irakasleen Kidegoko Psikologia eta Pedagogiaren espezialitateko lanpostuak ibiltariak izan daitezke.

--	--

6.-Nazionalitate espainiarra ez duten izangaien berriazko betebeharrak:

Nazionalitate espainiarra ez duten izangaiek, hautapen prozesuan onartuak izango badira, gaztelaniaz egoki egiten dutela frogatu beharko dute, hirugarren arauko 2.B) atalean xedatutako moduan.

7.-Arau honetan jasotako betebeharrak guztiak eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean bete beharko dira eta karrerako funtzionario gisa lanpostuaren jabetza hartu arte betetzen jarraitu.

Hirugarrena.-Eskabideak eta eskubideen ordainketa.

1. Hautapen prozeduran parte hartu nahi dutenek hala adierazi beharko dute eskabidean; eskabidea, ordainketa gutunaren inprimakia-rekin batera, eskura izanen dute interesdunek Nafarroako Gobernu Hezkuntza Departamentuko Argibide eta Agiri Bulegoan. Halaber, parte hartzeko eskabidea eta ordainketa gutun hirukoiztua Nafarroako Gobernu Hezkuntza Zuzendaritza Nagusiaren webgunean: www.pnte.cfnavarra.es, baita Nafarroako Gobernuaren webgunean ere: www.cfnavarra.es.

Eskabidean izangaiek zehaztu beharko dute zein kidego, espezialitate eta hizkuntzatan parte hartzen duten, deialdi honetako 1. arauan agertzen diren artean aukeraturik, eta horrez gain, zehaztu beharko dute zer prozeduraren bidez parte hartzen duten espezialitate eta hizkuntza bakoitzerako, ondoko hauen artean:

Zein prozeduraren bidez parte hartzen den:

-Irekia

-Minusbaliatuentzako erreserba

-Bigarren Hezkuntzako Irakasleen Kidegora igotzea

2. Izangaiek parte hartzeko eskabide bakar bat aurkeztuko dute, ondoko agiri hauekin batera:

A) Nazionalitate espainiarreko izangaiek:

1.-Nortasun Agiri Nazionalaren edo nortasun agiri baliokidearen fotokopia konpultsatua. Agiri hau DIN-A4 paperean aurkeztuko da.

2.-Zinpeko aitortpena edo hitz ematea inongo Administrazio Publikoren zerbitzutik diziplina espediente bidez berezia ez dagoela edo eginkizun publikotarako desgaitua edo gabetua ez dagoela.

3.-Kidego, espezialitate eta hizkuntza bakoitzeko ordainketa gutun bat, arau honetako 8. puntuan ezarritakoaren arabera.

4.-Doktore, lizentziadun, ingeniari edo arkitekto edo, hala behar denean, unibertsitateko diplomadun, ingeniari tekniko edo arkitekto tekniko titularen edo irakaslanerako baliokidetza hartzen den titularen fotokopia konpultsatua, edo titulua emateko eskubideak ordaindu dituela frogatzen duen ziurtagiria.

Titulua atzerrian eskuratu bada, horren fotokopia konpultsatua aurkeztuko da eta, horrekin batera, homologatuta edo onetsita dagoela egiaztatzen duen agiria.

5.-Bigarren Hezkuntzako Irakasleen Kidegoko lanpostuak eskuratu nahi dituzten izangaiek ondokoak ere aurkeztu beharko dituzte: Irakaslanerako Espezializazio Tituluaren edo Irakasgaitasun Ziurtagiriaren fotokopia konpultsatua edo, halakorik ez bada, baldintza hori ez duela bete behar frogatzen duen agiria. Ondoko izangai hauek ez dute bete behar hori izanen:

-Maisu-maistra titulua dutenek, Oinarritzko Hezkuntza Orokorreko irakasle diplomadunek, Lehen Hezkuntzako maisu-maistrek eta Pedagogia eta Psikopedagogiako lizentziadunek, ez eta baliokidea den eta prestakuntza pedagogiko eta didaktikoa ematen duen lizentziatura edo titulazioa dutenek ere.

-Teknologiaren eta Psikologia eta Pedagogiaren espezialitateetan eta Berriazko Lanbide Heziketako espezialitateetan sartzeko deialdian parte hartzeko eskaera egiten dutenek.

-Bi ikasturte osoko irakasle esperientzia dutela frogatzen dutenek edo, halakorik ez bada, elkarren segidan izan ez diren hamabi hilabeteko esperientzia, betiere behar bezala baimendutako irakaskuntza arautuko ikastetxe publiko edo pribatuaren aritu badira. Ikastetxe publikoiei dagokienez, Zuzendaritza Probintzialak edo Hezkuntza Administrazio eskudunak emandako ziurtagiriaren bidez egiaztatuko da hori. Ez dira kontuan hartuko lanpostuaren jabetza hartzeko eta zerbitzua uzteko orriak. Behar bezala baimendutako ikastetxe pribatu bati dagokienez, ikastetxe horretako zuzendariak emandako ziurtagiria aurkeztu beharko da, kasuan kasuko Hezkuntza Ikusatzailatzaren oniritziarekin. Ziurtagiri guztietan zerbitzuak hasi eta bukatu zireneko data zehatzak aipatuko dira.

6.-Euskaraz irakasteko lanpostuetarako edo Euskal Hizkuntza eta Literatura espezialitateko lanpostuetarako parte hartuz gero, titulu hauetakoren baten fotokopia konpultsatua: Euskal Filologiako lizentziadun titulua, EGA titulua (Euskararen Gaitasun Agiria), Euskaltzaindiarena, Hizkuntza Eskola Ofizial batek emandako Euskararen Gaitasun Agiria edo baliokidetza jotzen den titulu bat.

7.-Oposizioaldiko B.2) ariketaren ordezkari hezkuntza administrazio eskudunak prestatutako txostena aurkeztu nahi duten izangaiek, zortzigarren arauko 1.1.2 puntuan xedatutakoarekin bat, zerbitzuen orria

aurkeztu beharko dute, administrazio horrek luzatua, zein kidegotarako izendatu zituzten eta lanean noiz hasi eta noiz gelditu ziren adieraziz. Espresuki adierazi beharko da zerbitzuak ikastetxe publikoetan eman direla. Zerbitzuak lanpostu berean eman direla ere agertarazi beharko da.

Zerbitzuak Nafarroako Gobernu Hezkuntza Departamenturako egin badira, Giza Baliabideen Zerbitzuak ofizioz aurkeztuko du zerbitzuen orria.

8.-Merezimenduen frogagiriak, I. eranskinean onartu den baremoan ezarritakoaren arabera.

Irakaskuntzan izaniko esperientziak merezimenduen baremoko I. atala baloratzeari begira, interesdunek parte hartzeko eskabide orrian eskatzen ahaliko dute Giza Baliabideen Zerbitzuak ofizioz gehitu ditzala Nafarroako Gobernu Hezkuntza Departamentuarentzat egindako zerbitzuak, izangai bakoitzaren espediente pertsonalean ageri den dokumentazioaren arabera. Eskaera hori egiten ez bada, interesdunek aurkeztutako merezimenduak soilik baloratuko dira.

B) Beste nazionalitate bateko izangaia:

Atal honetako A) atalean ezarritako betebeharrak gain, beste hauek:

1.-Espainian bizi diren atzerriko izangaiek ondoko hauek aurkeztu beharko dituzte: nortasun agiriaren edo pasaportearen fotokopia konpultsatua eta Europar Batasunean bizi delako indarreko txartelarena edo Europar Batasunean bizi den baten ahaide izatearen indarreko txartelarena edo, kasuaren arabera, Europar Batasunean aldi batez bizi izateko txartelarena edo Europar Batasuneko mugaz gaindiko langilearena.

Europar Batasuneko herrialdeetakoak diren izangaiek, ez badira Espainian bizi, atzerrian bizi direlako edo Espainian "egonaldi" erregimenaren daudelako, nortasun agiri nazionalaren edo pasaportearen fotokopia konpultsatua aurkeztu beharko dute.

Aurreko horien ahaideek ondoko agiriaren fotokopia konpultsatua aurkeztu beharko dute: pasaportearena, bisatua eta, kasuaren arabera, behar den txartela eskatu izanaren gordekinarena edo bisatuaren salbuespena eta behar den txartela eskatu izanaren gordekinarena. Agiri horiek eskatu ezean, agintaritza eskudunek ahaideetasun lotura egiaztatzeko emandako agiriak aurkeztu beharko dituzte, baita, zein espainiarrekin edo Europar Batasuneko zein kidearekin duten ahaideetasun lotura horren zinpeko aitortpena edo hitz ematea ere, non adieraziko den bere ezkontidearengandik zuzenbidez bananduta ez dagoela eta, kasuaren arabera, izangai bere bizkar bizi dela edo bere kargupean dagoela. Bestela, haien egoera frogatzeko beste agiri batzuk, Europar Batasuneko edo Europako Esparru Ekonomikoari buruzko Akordioari lotutako beste estatu batzuetako herritarrek Espainian sartu eta bizi zeari eta beren joan-etorri askeari buruzko otsailaren 16ko 240/2007 Errege Dekretuaren arabera.

Deialdian parte hartzeko eskabidean, nazionalitate espainiarra ez duten izangaiek "Nortasun Agiri Nazionalari" dagokion laukian adierazi beharko dute beren estatuko Nortasun Txartelari dagokion zenbakia edo pasaportearena. Halaber, zein nazionalitate duten adierazi beharko dute, bai eta gaztelaniaren jakite maila frogatzeko azterketa egitetik salbutsiak dauden ala ez ere.

2.-Zinpeko aitortpena edo hitz ematea, izangaia bere Estatuko funtzio publikoan sartzeko diziplina zehapenik edo zigor penalik ez duela frogatzen duena.

3.-Gaztelania behar beste badakitela frogatzeko, Gaztelaniaren Goi Mailako Diplomaren fotokopia konpultsatua aurkeztu beharko dute, zeina Atzerriko Hizkuntzatzat hartutako Gaztelaniaren Goi Mailako Diplomaren baliokidea baita (urriaren 31ko 1137/2002 Errege Dekretuak ezarritakoa), edo Hizkuntza Eskola Ofizialek atzeritarrendako ematen duten Gaztelaniaren Gaitasun Agiriarena edo Filologia Hispaniko edo Erromanikoaren titulua. Era berean, ez dute gaztelania probarik egin beharko hizkuntza ofiziala gaztelania duen herrialde bateko nazionalitatea duten izangaiek, Espainian unibertsitateko titulazio bat erdietsi dutenek eta Bigarren Hezkuntzako Irakasleen Kidegoan Gaztelania eta Literaturako espezialitatearen bidez sartu nahi duten izangaiek. Izangaia behar den ziurtagiria erantsiko du, hautapen prozesuan parte hartzeko eskabidearekin batera.

Hala ez bada, hizkuntzaren jakite proba bat gainditu beharko dute, deialdi honetako zazpigarren arauko 6. atalean xedatutakoari jarraikiz.

C) Minusbaliatuentzako erreserba txandako izangaia:

Atal honetako A) letran edo, kasua bada, B) letran ezarritako betebeharrak gainera, Nafarroako Mendekotasun Agentziako Balorazio eta Orientazio Taldeek emandako ziurtagiria edo beste irizpen lotzaile bat aurkeztu beharko dute, talde multiprofesional eskudun batek emana, %33ko ezigaitasuna edo handiagoa dutela frogatzeko.

Erreserba prozedura honetan parte hartu ahal izateko, eskabidean adierazi beharko dute izangaiek aukera hori.

Halaber, ariketak egiteko denbora eta baliabide aldetik behar dituzten egokitzapenak eskatzen ahaliko dituzte, horren beharrik izanez gero, eta eskabidean bertan adierazi. Aparteko orri batean adierazi be-

harko dute zein minusbaliotasun duten eta zein egokitzapen eskatzen duten.

Minusbaliotasuna frogatzen duen ziurtagiria edo irizpena aurkeztu ezik, izangaia ezin izanen da onartu minusbaliatuendako txandan eta ezin izanen dira ariketak egiteko egokitzapenak egin.

D) Bigarren Hezkuntzako Irakasleen Kidegora igotzeko prozedurako izangaiak:

1.-Nortasun Agiri Nazionalaren edo nortasun agiri baliokidearen fotokopia konpultsatua. Agiri hau DIN-A4 paperean aurkeztuko da.

2.-Zinpeko aitortpena edo hitz ematea inongo Administrazio Publikoren zerbitzutik diplina espediente bidez berezia ez dagoela edo eginkizun publikoetarako desgaitua edo gabetua ez dagoela.

3.-Kidego, espezialitate eta hizkuntza bakoitzeko ordainketa gutun bat, arau honetako 8. puntuan ezarritakoaren arabera.

4.-Doktore, lizentziadun, ingeniari edo arkitekto titulua edo irakas-kuntzarako baliokidea den titulua izatea, edo titulua emateko eskubi-deak ordaindu izanaren frogagiria.

Titulua atzerrian eskuratu bada, horren fotokopia konpultsatua aurkeztuko da eta, horrekin batera, homologatuta edo onartuta dagoela egiaztatzen duen agiria.

5.-Hezkuntza Departamentuko Giza Baliabideen Zerbitzuak, Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuko Funtzio Publikoaren Zuzendaritza Nagusiko Langileriaren Erregistro Nagusiak edo beren gainetik duten Ministerioak edo erakundeak egindako egiaztagiria edo zerbitzu-orria aurkeztu beharko dute, izaera hori egiaztatzeko, datu hauek azalduta:

a) Beren kidego, arlo edo espezialitatea, langilearen erregistro zenbakia, hala behar balitz, eta jardunean den ala ez.

b) Non eta noiz den jaioa.

c) Titulu akademikoa eta noiz eman zen.

d) Gradu eta bosturtekoen egiaztagiria edo, halakorik bada, hirurteko eta seiurtekoena, eta noiz betetzen diren.

Ezinezkoa baldin bada kidegoan sartzeko eskatutako betebeharren bat ziurtagiritan agertaraztea, interesdunen espediente pertsonaletan ageri ez delako, interesdunek bereizita bidali beharko dituzte horiek frogatzeko agiriak.

Aurreko ataletan adierazitako agiriak aurkezteko ezintasunik baldin bada, behar bezala justifikatua izanez gero, zuzenbidean onartua den edozein frogabidez baliaturik frogatzea deialdian eskatutako baldintzak betetzen dituztela.

Zerbitzuak Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamenturako egin badira, ofizioz aurkez daitezela eskatzen ahalko du izangaiak.

6.-Merezimenduen frogagiriak, II. eranskinean onartu den baremoan ezarritakoaren arabera.

3. Aurkezten diren agiriak jatorrizkoak edo kopia konpultsatuak izanen dira. Horretarako, Hezkuntza Departamentuaren mendeko ikastetxeetako zuzendariak ahalmena dute agiriak konpultsatzeko, Hezkuntza eta Kultura kontseilariak maiatzaren 18an emandako 182/2001 Foru Aginduan ezarritakoari jarraikiz (ekainaren 29ko Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALA, 79. zk.).

4. Aipatu epearen barrenean agiriak aurkezten ez badituzte, oposizio-lehiaketatik kanpo geldituko dira; orobat, onartu eta baztertuen behin betiko zerrendak onesten dituen Ebazpenaren ondotik egiaztatzen bada ez dituztela baldintzak betetzen, beren jarduketak deuseztatu egingen dira, hasierako eskabideko faltsukeria dela eta legokiekeen erantzunberrira galarazi gabe.

5. Espezialitate eta hizkuntza batean izena eman eta onartzeak ez dio izangaiari bermatuko eskatu dituen espezialitate eta hizkuntza guztietan parte hartu ahal izatea, ezartzen den hautapen prozesuaren antolaketa ondorio hori baldin badakar.

6. Nazioarteko erakundeetako funtzionarioek, Espainiako nazionalitatea badute, parte hartzeko eskabidearekin batera 182/1993 Errege Dekretuaren 7. artikuluan adierazitako homologaziorako ziurtagiria aurkeztu beharko dute, egin behar ez duten proba zein den adierazteko, zortzigarren 8.1.4. arauan ezartzen den bezala.

7. Eskabide orria zein organori zuzendu behar zaion eta aurkezteko tokia.

Deialdian parte hartzeko eskabideak Giza Baliabideen Zerbitzuari zuzenduko zaizkio eta ondoko toki hauetakoren batean aurkeztu beharko dira: Hezkuntza Departamentuko Erregistroan (Santo Domingo, zk.g., Iruña), Nafarroako Gobernuak Erregistro Orokorrean, Nafarroako Gobernuaren gainerako erregistro bulegoetan (zerrenda 2007ko 14. Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu zen, urtarilaren 31n), edo Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 20ko 30/1992 Legeko 38.4 artikuluan adierazitako bideren bat erabiliz.

Eskaera posta bulego batean aurkeztuz gero, gutun-azal irekian egingen da, postako langileek, ziurtatu aurretik, data eta zigilua jar dituzten.

Atzerrian sinatutako eskabideak kasuan kasuko espainiar ordezkari-tza diplomatiko eta kontsularren bidez tramitatzen ahalko dira, deialdi honen laugarren arauan ezarritako epean. Interesdunak atzerketa eskubideak ordaindu izanaren banketxeko frogagiria atxikiko dio eskabideari.

8. Atzerketa eskubideak.

Bigarren Hezkuntzako Irakasleen eta Hizkuntza Eskola Ofizialetako Irakasleen Kidegoetako espezialitate eta hizkuntza bakoitzeko atzerketa eskubideengatik 25 euro ordaindu izanaren frogagiria erantsiko zaio eskabideari; 18 euro ordainduko dira, berriz, espezialitate eta hizkuntza bakoitzeko, Lanbide Heziketako Irakasle Teknikoen Kidegoan. Ordainagiria aurkeztu ezean izangaia baztertuta geldituko da.

Atzerketa eskubideak Nafarroako Foru Komunitatean ordainduz gero, ordainketa gutun baten bidez egin beharko da edozein banketxetan, edo bestela, banketxeko transferentzia eginez, BBVAren (Banco Bilbao Vizcaya Argentaria) 01825000 82 0711500306 kontu-zenbakira.

Ordainketa beste autonomia erkidego batean egiten bada, banketxeko transferentziaren bidez soilik egingen da, dirua kontu honetan sartuta: BBVAko (Banco Bilbao Vizcaya Argentaria) 01825000 82 0711500306 zenbakia.

Transferentzia bidez eginez gero, transferentziaren agirian datu hauek jarriko dira:

–Izangaiaren izen-deiturak.

–Ordainketa zein kontu zenbakitan egin behar den.

–Kontzeptua: Irakasleen oposizioak. 2008. urtea.

Kidegoa: Espezialitatea: Hizkuntza:

Izangaia, espezialitatea eta hizkuntza zehazteko datuetakoren bat ez jartzeak izangaia baztertzea ekarriko du.

Ez da onartuko Internet bidez egindako transferentziarik.

Atzerketa eskubideak ordaintzeak ez du inolaz ere kenduko arau honetako 7. puntuan aipatutako organoaren aurrean eskabidea aurkeztu beharra, horretarako ezarritako epe eta moduan.

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen tasa eta prezio publikoen gaineko martxoaren 27ko 7/2001 Foru Legeko 31. artikulua arabera, tasak ordaintzetik salbuetsita daude:

a) %33ko ezgaitasuna edo handiagoa duten pertsonak.

b) Deialdi hau argitaratu baino hilabete bat lehenagotik gutxienez lan-eskatzaille gisa inskribaturik dauden pertsonak. Salbuespen hau izateko baldintza izanen da epe horretan eskainitako inolako lan egokiri uko egin ez izana eta lanbide igoera, prestakuntza edo eraberritze ekintzetan parte hartzeari uko egin ez izana, justifikatutako arrazoiaren bat izan ezean, eta, halaber, hilabetean lanbide arteko gutxieneko lan-saririk goragoko errentarik ez izatea.

Lan-eskatzaillea dela frogatzeko, Enplegu Bulegoak emandako agiria aurkeztu beharko da. Bertan, lan-eskatzaille gisa inskribatu zene data agertuko da eta, orobat, adieraziko da inskribaturik egon den bitartean ez diola uko egin handik eskainitako inolako lan egokiri, ez eta lanbide igoera, prestakuntza edo eraberritze ekintzetan parte hartzeari ere, justifikatutako kasuetan izan ezik.

Hilabetean lanbide arteko gutxieneko soldatatik gorako dirusarrerarik ez duela interesdunaren aitortpenaren bidez frogatuko da. Aitorpenaren ereduak Nafarroako Gobernuak Informazio Bulegoan eskuratzen ahalko da, edo bestela Internet bidez, arestian emandako helbidean.

Laugarrena.–Eskaerak aurkezteko epea.

Eskabideak aurkezteko hogeitaz egun naturaleko epea izanen da, deialdi hau Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta biharamunetik aitzina.

Bosgarrena.–Izangaiak onartzea.

1. Izangai onartu eta baztertuen zerrendak.

Eskabideak aurkezteko epea amaitutakoan, Giza Baliabideen Zerbitzuak jendaurrean paratuko du ondoko zerrendak onesteko Ebazpena, horren iragarpenera egin ondoren, Hezkuntza Departamentuko Argibide eta Agiri Bulegoan (Santo Domingo, zk.g., Iruña) eta Hezkuntza Departamentuaren www.pnte.cfnavarra.es webgunean.

–Onartu eta baztertuen behin-behineko zerrendak, espezialitate, hizkuntza eta kidegoen arabera. Zerrenda horietan honako hauek adieraziko dira: izangaien izen-deiturak, Nortasun Agiri Nazionalaren zenbakia edo izangaiaren nazionalitatea frogatzen duen agiriarena (espainiarrek ez badira), zein prozeduratan parte hartzen duten eta, baztertuen kasuan, baztertze arrazoiak. Orobat, bertan agertuko dira gaztelaniaren proba egin behar dutenak eta egiteki salbuetsita daudenak.

–Unitate didaktiko bat prestatu eta ahoz azaltzearen ordeztu, unitate didaktikoari buruzko ezagutza baloratzen duen txosten bat aurkezteko aukerarako onartu eta baztertu direnen behin-behineko zerrendak,

deialdiko zortzigarren arauan eskatutako baldintzak betetzeagatik edo ez betetzeagatik.

Behin-behineko zerrenda horiek onesteko ebazpena argitaratzea rekin ulertuko da interesdunei egin beharreko jakinarazpena egin dela, azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 59. artikuluan aurreikusten diren ondorioetarako.

2. Izangaiek hamar egun naturaleko epea izanen dute, ebazpena argitaratu eta bihamunetik hasita, erreklamazioak aurkezteko eta, kasu bada, baztertua izateko akatsa zuzentzeko. Era berean, beren datu pertsonalak ezartzean akatsak izan direla ohartu diren izangaiek epe horretan jakitera ematen ahalko dute. Erreklamazioak Hezkuntza Departamentuko Giza Baliabideen Zerbitzuari bidaliko zaizkio eta hiru garren arauko 7. puntuan aipatzen diren tokietako edozeinetan aurkeztuko dira.

Izapide horretan ezin izanen dira inolaz ere zuzendu merezimenak frogatzen dituzten agiriak.

3. Izangai onartu eta baztertuen behin betiko zerrendak.

Aurreko atalean aipatutako erreklamazioak ebatzi ondoren, ondoko zerrendak onesteko ebazpena emanen da:

–Onartu eta baztertuen behin betiko zerrendak.

–Unitate didaktiko bat prestatu eta ahoz azaltzearen orde, unitate didaktikoari buruzko ezagutza baloratzen duen txosten bat aurkezteko aukerarako onartu eta baztertu diren behin betiko zerrendak, deialdiko zortzigarren arauan eskatutako baldintzak betetzeagatik edo ez betetzeagatik.

Ebazpen hori argitara emanen da Hezkuntza Departamentuko Argibide eta Agiri Bulegoan (Santo Domingo kalea, zk.g., Iruña) eta Hezkuntza Departamentuaren webgunean: www.pnte.cfnavarra.es; nazioanaltate espainiarra ez duten izangaiek gaztelania proba zein egun eta ordutan egin beharko duten ere argitaratuko da.

Behin betiko zerrenda horiek onesten dituen ebazpena argitaratzearekin ulertuko da interesdunei egin beharreko jakinarazpena egin dela, azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 59. artikuluan aurreikusten diren ondorioetarako.

Ebazpen honen kontra gora jotzeko errekurtsioa jartzen ahal da, Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariari zuzendua, hilabeteko epean, argitaratu eta bihamunetik aitzina.

Seigarrena.—Hautapen organoak.

1. Izangaiei hautapena epaimahaiei eta horretarako izendatutako hautapen batzordeek eginen dute.

Giza Baliabideen Zerbitzuko zuzendariaren ebazpen baten bidez kidego, espezialitate eta hizkuntza bakoitzeko epaimahai bat izendatuko da, eta horien osara Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratuko da.

Prozedura desberdinen bidez espezialitate eta hizkuntza berean aurkeztutako izangaiei kopuruak halaxe eskatzen badu, epaimahai bat baino gehiago izendatzen ahalko da, Giza Baliabideen Zerbitzuak hala irizten badio eta, hala bada, Hautapen Batzorde bat osatuko da.

2. Mahaikideak karrerako funtzionarioak izanen dira, jardunekoak, bai irakasleen kidegokoak, bai Hezkuntza Administrazioaren zerbitzuko ikuskatzailen iraungi beharreko kidegokoak. Bost izanen dira.

Izangaiek zein kidegotan sartu nahi duten, sailkapen talde horretako edo goragoko kidego batekoak izanen dira epaimahaiko kide guztiak. Orobat, epaimahaien osaketari dagokionez, hautapen prozesua zein kidegotakoa den, kidego horretako funtzionarioak izaten ahal dira kide gehienak.

Epaimahaiak hautatzerakoan, kontuan hartu beharko da espezialitatearen printzipioa, zeinaren arabera mahaikide gehienek hautapen prozesuaren xede den espezialitateko titular izan beharko duten, eta emakumezko eta gizonezko irakasleen arteko berdintasunera joko da, arrazoi oinarritu eta objektiboek eragotzen ez badute behintzat.

Epaimahaiak honela osatuko dira:

–Mahaiburu bat, Hezkuntza Departamentuak zuzenean izendatua.

–Lau mahaikide, zozketa publikoaren bidez hautatuak kasuan kasuko espezialitateari atxikita eta jardunean dauden funtzionarioen artean.

Zozketaren prozedura honelakoa izanen da:

Abecedariotik bi letra aterako dira eta horiek izanen dira kidego, espezialitate eta hizkuntza bakoitzeko irakasle funtzionarioaren lehen deituraren hasierako letrak. Hasierako bi letra horiekin hasten den lehenengo deiturarik ez badago, ordena alfabetikoan hurrengo den deitura hartuko da, "ZZ" letren ondotik "AA" letrak datozela ulertuko delarik, eta "CH" eta "LL" letrak, berriz, "C" eta "L" letren hurrenkeran, hurrenez hurren, egonen dira integratuta.

Espezialitateko titularren kopurua ikusita, zozketa egitea ezinezkoa denean, Hezkuntza Departamentuak zuzenean izenda ditzake mahaikideak.

Salbuespen gisa, horretarako justifikatutako arrazoiak baldin badaude, zilegi izanen da hezkuntzako beste administrazio batzuei kasuko

espezialitateko funtzionarioak izenda ditzatela eskatzea, epaimahaiak osatzearen, eta, bai halaber, epaimahaiak beste espezialitate bateko funtzionarioekin osatzea, eta kasu horretan aholkulari espezialistak aukeratzen ahalko dira.

Epaimahaiko idazkari lana kidegoan antzinasunik txikiena duenak eginen du, epaimahaiak bestelakorik erabakitzen ez badu behintzat.

3. Epaimahai bakoitzeko ordezkio kideak izendatuko dira, prozedura berari jarraikiz.

4. Hautapen batzordeen osara. Izangai kopurua eta deialdiko lanpostu kopurua dela-eta, espezialitatearen baterako epaimahai bat baino gehiago izendatu beharra gertatzen bada, espezialitate eta hizkuntza bakoitzerako hautapen batzordeak eratuko dira. Batzorde horiek mahaiburuak osatuko dituzte, eta ez dira bost baino gutxiago izanen; mahaiburuak bost baino gutxiago izanez gero, idazkariak osatuko dute kopuru hori, eta hala ez bada, mahaikideek. Batzorde horren buru 1. epaimahaiko burua izanen da beti, eta idazkaria, berriz, batzordea osatzen duten kideen artean kidegoan azkena sartu den funtzionarioa, non eta batzordeak ez duen beste modu batean hautatzea erabakitzen.

5. Maiatzaren 16ko 202/1991 Foru Dekretuaren 1. artikulua eta otsailaren 23ko 276/2007 Errege Dekretuaren bidez onetsitako Errege-lamenduaren 8. artikulua 3. puntuak diotenaren arabera, hautapen organoetan parte hartzea nahitaezkoa da, eta epaimahaietako kideei aipatu foru dekretuan zehazten diren ordainak dagozkie.

6. Hautapen organoetako kideek ezin izanen dute bertan parte hartu baldin eta Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Foru Legearen 28. artikuluan jasotako egoeretako batean badaude, edo deialdia argitaratu aurreko bost urteetan kidego eta espezialitate bereko hautaprobetarako izangaiek prestatzen modu sistematikoan aritu izan badira. Horrelakorik gertatuz gero, Departamentuko Giza Baliabideen Zerbitzuari jakinarazi beharko diote. Halako egoeraren bat izanez gero, izendapenaren ebazpena jakinarazi eta bost egun balioduneko epean eman beharko da horren berri.

Halaber, izangaiek mahaikideak errefusatzeko ahalak dituzte, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 28. artikuluan aurreikusitako egoeraren bat izaten denean.

7. Deialdi honi dagozkion hautaprobak hasi aurretik, Giza Baliabideen Zerbitzuko zuzendariak, beharrezkoa bada, aurreko atalean aurreikusitako arrazoiaren batengatik edo ezinbesteko arrazoi batengatik mahaikide izateari utzi dioten orde arituko diren kide berriak izendatzeko ebazpena emanen du.

8. Mahaiburuak dei egin ondoren, epaimahaiak eta, horrelakorik badago, hautapen batzordeak eratuko dira, mahaiburu eta idazkaria, edo horien ordezkioak, eta kideen erdiak, gutxienez, bertan direla.

9. Hautapen batzordeak eratu ondoren, beren jarduketek balioa izan dezaten beharrezkoa izanen da mahaiburu eta idazkaria, edo horien ordezkioak, eta kideen erdiak, gutxienez, bertan egotea.

10. Hautapen organoen eginkizunak.

Hautapen organoak autonomia funtzional osoz arituko dira, prozeduraren objektibotasunaren arduradunak izanen dira eta deialdiko arauak betetzen direla bermatuko dute.

Era berean, epaimahaiak antolaketa neurri egokiak har ditzakete, haurdun dauden emakumeek, erditzea epaimahaiaren aurrean aurkezteko egunean eta oposizioa ariketaren bat egiteko egunean izaten denean, hautapen prozeduretako fase guztietan parte hartzeko modua izan dezaten.

10.1. Epaimahaien eginkizunak. Epaimahai eginkizun hauek dagozkie:

–Deialdi honek xedatzen duenari jarraikiz, hautapen prozesuak behar bezala burutzen diren begiratzea.

–Oposizioaldiko ariketak kalifikatzea.

–Espezialitate eta hizkuntza bakoitzerako epaimahai bakarra izendatzen bada, honako eginkizun hauek ere izanen dituzte: oposizioaldian eta lehiaketaldian lortutako puntuazioen batuketara egitea, izangaia ordenatzea, bi faseak gainditzeko dituzten izangaiei zerrendak prestatzea, lehiaketaldia eta oposizioaldia gainditu dituzten izangaiei deklarazioa egitea, horien zerrendak argitaratzea eta organo dei-egileari igortzea.

10.2. Hautapen batzordeen eginkizunak. Hautapen batzordeei eginkizun hauek dagozkie:

–Epaimahaiak koordinatzea.

–Epaimahaien jarduketarako irizpideak finkatu eta homogeneizatzea.

–Epaimahaiak oposizioaldian emandako puntuazioei lehiaketaldikoak gehitzea, izangaia ordenatzea eta bi fase horiek gainditzeko dituzten izangaiei zerrendak prestatzea.

–Lehiaketaldia eta oposizioaldia gaintzen dituzten izangaiei deklarazioa egitea, horien zerrendak argitaratzea eta organo dei-egileari igortzea.

Hautapen prozesuko fase guztietan, hautapen batzordeek ebartziko dituzte deialdiko arauak aplikatzerakoan sortzen diren zalantzak.

10.3. Administrazio beste organo batzuei emandako eginkizunak.

Deialdiaren I. eta II. eranskinetan jasotako baremoaren arabera izangaiei dagokien puntuazioa honako hauek emanen dute:

–Eranskinetako I. atalari dagokionez, Giza Baliabideen Zerbitzuari atxikitako langileek.

–Eranskinetako II. eta III. atalei dagokionez, deialdiaren zortzigarren arauko 2. atalean aipatzen diren balorazio batzordeek.

Organo horiek hautapen organoen izenean egiten dute balorazioa eta, oposizioaldia bukatutakoan, emaitzak helaraziko dizkiete.

Era berean, mahaiburu koordinatzaile bat edo gehiago eta idazkari koordinatzaile bat edo gehiago edo, hala badagokio, mahaiburu koordinatzailearen eta idazkari koordinatzailearen laguntzaileak izendatzen ahalko dira. Horiek Hezkuntza Departamentuak esleitzen dizkien eginkizunak beteko dituzte, hautapen prozesua zuzen tramitatzeko eta epaimahaiek eta, halakoak daudenean, hautapen batzordeek beren jarduketa errazago egin dezaten.

10.4. Hautapen organoen jarduketa Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Foru Legeak xedatutakoari lotuko zaio beti.

11. Epaimahaiek edo, halakoak daudenean, hautapen batzordeek, beren lanetarako aholkulari espezialistak eta laguntzaileak eskatzen ahalko dituzte. Horiek Giza Baliabideen Zerbitzuko zuzendariak izendatuko ditu. Lehenbizikoan egin beharra izanen da hautapen organoaren kideei aholku ematea, espezialitate bakoitzean ezagupenak eta merezimenduak ebaluatzean. Laguntzaileen egin beharra izanen da hautapen organoari laguntza ematea, horiek adierazten dizkieten zeregin teknikoak eginez. Jarduera bakoitzean batzuk eta besteak beren eskumetara mugatuko dira.

12. Hautapen organoek behar diren kasuetan neurriak hartuko dituzte, minusbalotasunak dituzten izangaiek ere gainerako parte-hartzaileek bezalatsuko aukerak izan ditzaten ariketak egiterakoan. Horretarako, deialdi honen 3. arauko 1. atalean aurreikusitako eran, hala eskatzen duten minusbalatuentzat denbora eta baliabide egokitzapenak bideratuko dira, betiere irakaskuntzaren eginkizunekin bateragarriak baldin badira.

13. Jakinarazpenetarako eta gainerako gorabeheretarako, hautapen organoek Hezkuntza Departamentuan izanen dute egoitza (Santo Domingo kalea, zk.g., Iruña), eta bertan aurkeztu beharko dira hautapen prozeduraren gainean sortzen diren afera guztiak.

14. Hautapen organoek ezin izanen dute deklaratu, inolaz ere, hautapen prozesua kidego, espezialitate eta hizkuntza horretarako lanpostu kopurua baino izangai gehiagok gaintzen dutela.

Zazpigarrena.–Zehapen prozeduraren nondik-norakoak.

1. Hautapen prozesuan lehiaketaldi bat izanen da; horretan prestakuntza akademikoa baloratuko da eta, bereziki, hezkuntza etapa bereko ikastetxe publikoetan irakasle lanetan izaniko esperientzia, deialdiko I. eranskinean ageri den merezimendua baremoarekin bat; horretaz gainera, oposizioaldia izanen da, proba bakar batekin, kasuan kasuko espezialitateko edukiei, gaitasun pedagogikoari eta irakaskuntzan aritzeko behar diren tekniken ezagutzari buruz. Halaber, praktikaldi bat izanen da, prestakuntza ikastaroak biltzen ahalko dituen eta hautapen prozedura osatuko duena.

Epaimahaiaren aurrean egiten den aurkezpen ekitaldi batekin hasiko da oposizioaldia, eta horretan probako B.1) zatian aipatutako programazio didaktikoa eman beharko dute izangaiek. Aurkezpen ekitaldira joaten ez diren eta programazio didaktikoa ematen ez duten izangaiek hautapen prozeduratik baztertuko dira, eta ez da zilegi izanen beste pertsona batzuk haien ordeztu agertzea.

Horren ondoren oposizioaldiko proba egiten da, honela banatuta:

–A zatia, ariketa idatzi bat, deialdiaren zortzigarren arauko 1.1.1.1 atalean xedatutakoaren arabera.

–B zatia, ondoko ariketa hauetan banatua, deialdiaren zortzigarren arauko 1.1.1.2 atalean xedatutakoaren arabera.

B.1): programazio didaktiko baten aurkezpena.

B.2): unitate didaktiko bat prestatu, azaldu eta defendatzea.

B.3): ariketa praktikoa, deialdiko VI. eranskinean aipatzen diren espezialitateetan.

2. Oposizioaldiari 2008ko ekainaren 16tik aurrera emanen zaio hasiera, aurkezpen ekitaldi baten bidez.

Izangaiei oposizioa aurkezpen ekitaldirako dei egiten zaie Giza Baliabideen Zerbitzuko zuzendariak emandako ebazpen baten bidez.

Ebazpen hori argitara emanen da Hezkuntza Departamentuko Argibide eta Agiri Bulegoan (Santo Domingo, zk.g., Iruña) eta Hezkuntza Departamentuaren webgunean, gutxienez zazpi egun natural lehenago, eta bertan epaimahaiaren aurrean egin beharreko lana zein egun, ordu eta tokitan egiten den adieraziko da.

Halaber, ebazpen horren bidez oposizioaldiko probaren A zatia egiteko dei egiten zaie.

Sarrera prozeduran beste kidego batetik abiatuta parte hartzen duten izangaiei ere Giza Baliabideen Zerbitzuko zuzendariaren ebazpen baten bidez egiten zaie dei probarako.

Epaimahaiaren aurrean egin beharreko jarduketak hasi eta gero, izangaientzako hurrengo deialdiak ariketak egin diren tokian eta Hezkuntza Departamentuaren www.pnte.cfnavarra.es webgunean jarriko dira, berrogeita zortzu ordu lehenago gutxienez.

Izangaiei dei bakarra egiten zaie epaimahaiaren aurreko jarduketak egiteko, eta hautapen prozesutik baztertu egiten dira agertzen ez direnak. Ondorio horietarako, ariketa kolektibo batera deitutakoek deietan ezarritako ordu eta egunean agertu beharko dute epaimahaiaren aurrera. Banan-banako ariketetan, egun bakoitzerako deitutako izangaiek bertan egon beharko dute epaimahaiak jarduketak hasteko ezarritako orduan.

3. Izangaiek parte hartzeko ordena alfabetikoki zehaztuko da; horretarako Giza Baliabideen Zerbitzuak zozketaz bi letra aterako ditu eta lehenengo deituraren hasiera letra horiekin duen izangai hasiko da, deialdi honen seigarren arauko 2. atalean adierazitako moduan.

Probaren B zatian, adierazi den irizpideari jarraituz, B.1) ariketa soilik egin behar duten izangaiei dei egiten zaie lehenik eta, gero, B.1) eta B.2) ariketak egin behar dituzten izangaiei.

4. Epaimahaiak edozein unetan eskatzen ahalko die izangaiei beren nortasuna frogatzela.

5. Nazionalitate espainiarra ez duten izangaiek gaztelaniaz badaikitela frogatzeko egin beharreko proba:

oposizioaldiko proba egin aitzin, nazionalitate espainiarra ez duten izangaiek gaztelania proba egin beharko dute, ahozko zein idatzizko ulermen eta adierazpenean maila egokia dutela frogatzeko.

Proba horretan idazlan bat egin beharko da gaztelaniaz, gutxienez berrehun hitzekoa, eta elkarriketa bat epaimahaikoekin.

Oposizioaldiko proba hasi baino lehen egiten da proba hori. Hautapen prozedurarako izangai onartuen eta baztertuen behin betiko zerrendak onesten dituen ebazpenak zehaztuko du proba noiz eta non egiten den.

Proba hori ebaluatuko duen epaimahaiak jardunean diren karrerako irakasle funtzionarioek osatuko dute. Irakasle horiek, hautapen prozedurak zein kidegotan sartzeko egin diren, haien sailkapen talde bereko edo goragoko kidego batekoak izanen dira.

Proba horren kalifikazioa "gai" edo "ez gai" izanen da, eta oposizioaldiko probara pasatzeko "gai" balorazioa lortu beharko da.

Proba hori bukatu ondoren azterketa egiten den tokian jarriko dira emaitzak ikusgai.

Proba hori egiteko salbutsiak izanen dira Gaztelaniaren Goi Mailako Diploma dutenak, zeina baliokidea baita Atzerriko Hizkuntzatzat hartutako Gaztelaniaren Goi Mailako Diplomarekin (urriaren 31ko 1137/2002 Errege Dekretuak ezarritakoa) edo Hizkuntza Eskola Ofizialek atzerriarrendako ematen duten gaztelaniaren gaitasun agiria duten izangaiek edo Filologia Hispaniko edo Erromanikoaren titulua dutenak. Era berean, ez dute gaztelania probarik egin beharko hizkuntza ofiziala gaztelania duen herrialde bateko nazionalitatea duten izangaiek, Espainian unibertsitateko titulazio bat erdietsi dutenak eta Bigarren Hezkuntzako Irakasleen Kidegoan Gaztelania eta Literaturako espezialitatearen bidez sartu nahi duten izangaiek. Izangaiek behar den ziurtagiria erantsiko du, hautapen prozesuan parte hartzeko eskabidea erekin batera.

Zortzigarrena.–Hautapen sistema.

8.1. Oposizioaldia:

Oposizioaldian baloratuko dira aukeratu nahi den irakaskuntza espezialitatearen berriazko ezagutzak, gaitasun pedagogikoa eta irakaskuntzan aritzeko behar diren teknikak menderatzen diren.

Oposizioaldiko ariketen gai zerrendak, zein bere espezialitatekoa, deialdi honen V. eranskinean aipatutakoak dira.

Gai zerrendak Hezkuntza Departamentuaren www.pnte.cfnavarra.es webgunean eta Nafarroako Gobernuaren www.cfnavarra.es webgunean ikusten ahal dira.

Hizkuntza modernoan eta Euskal Hizkuntza eta Literaturaren espezialitateetako ariketa guztiak kasuan kasuko hizkuntzan egiten dira. Euskaraz emanen diren gainerako espezialitateetan izangaiek aukera izanen dute ariketa bakoitza gaztelaniaz ala euskaraz egiteko.

8.1.1. Sarbide irekiko eta minusbaliatuen txandako prozeduretako oposizioaldia.

8.1.1.1. Oposizioaldiko proba.

Oposizioaldian proba bakar bat izanen da, bi zatiz osatuta. Ez da baztertzaila izanen. Epaimahaiak probaren azken nota eta orotarikoa soilik argitaratuko du.

Izangaiek oposizioaldiko probaren ariketa guztietara agertu beharko dute. Horietakoren batera agertzen ez badira, baztertu egingen dira hautapen prozeduratik.

Izangaiek idatzizko ariketak epaimahaiaren aurrean ahoz azaldu edo irakurri behar ez dituenen bere izena ezkutuan egonen dela bermatuko da.

Oposizioaldiko proba zati hauetan banatzen da:

1.–A zatia.

Irakaskuntzan aritzeko behar diren berariazko ezagutzak frogatu beharko dira. Zati honetan, epaimahaiak zozketaz ateratako bost gaietako bat idatziz garatu beharko du izangaia.

Proba honen A zatia egiteko, izangaiek hiru ordu izanen dituzte gehienez.

Izangaien izena ezkutuan egonen dela bermatzeko, ariketa hau pliken bidez egingen da. Hala ere, epaimahaiak probaren azken nota eta orotarikoa soilik argitaratuko du.

A zatia 0 puntutik 10 puntura bitarte baloratuko da eta oposizioaldiko azken kalifikazioaren %40 egingen du.

2.–B zatia.

Izangaiek duen gaitasun pedagogikoa eta irakasle lanean aritzeko behar diren teknikak noraino menderatzen dituen baloratuko da. Horretarako, programazio didaktiko bat aurkeztu beharko du eta unitate didaktiko bat prestatu eta ahoz azaldu.

Tresnaren bat edo gaitasun teknikoren bat menderatzea eskatzen den espezialitateetan, bigarren zati honetan ariketa praktikoa izanen da, VI. eranskinean azaltzen diren ezaugarriekin.

B.1) Programazio didaktiko bat aurkezte.

Programazio didaktikoa izangaia aukeratu duen espezialitateari lotutako arlo edo modulu baten curriculumari buruzkoa izanen da. Bertan, helburuak, edukiak, ebaluazio irizpideak eta metodologia azaldu beharko dira, bai eta hezkuntza premia berariazkoak dituzten ikasleei laguntza emateko moduak ere.

Programazio hori bat etorriko da hezkuntza maila edo etapa bateko ikasturtearekin, zinean espezialitate horretako irakasleek irakasteko eskumena baitute.

Bigarren Hezkuntzako Irakasleen Kidegoan sartu nahi duten izangaien kasuan, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako, Batxilergoko edo Lanbide Heziketako Heziketa Zikloetako etapari lotuta egon daiteke.

Psikologia eta Pedagogiako espezialitatean, izangaiek urteko lan plan bat aurkeztu beharko dute. Bertan ikasturte batean garatu beharreko esku-hartze psikopedagogikoko programak jasoko dituzte, izangaia berak aukeratuko duen Haur eta Lehen Hezkuntzako, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako, Batxilergoko edota Lanbide Heziketako etapetako baterako.

Programazio didaktikoak 50 orri izanen ditu gehienez, DIN-A4 formatukoak, alde batetik bakarrik idatzita. Gutxienez ere 10 unitate didaktiko zenbakidun eduki beharko ditu. Programazioa egiteko, izangaia deialdi honetako VII. eranskinean aipatzen diren curriculumak erabili beharko ditu.

Izangaia prestatzen duen programazioa epaimahaiari eman beharko zaio, horren aurrean aurkezteko ekitaldian, deialdi honetako zazpigarren arauko 2. atalean aurreikusitako tokian, egunean eta orduan. Programazioa izangaia berak aurkeztzen ez badu oposizioaren aurkezpen ekitaldian, hautapen prozeduratik kanpo geratuko da.

Programazioa epaimahaiaren aurrean azalduko da. Izangaia gehienez ere hogeita hamar minutu izanen ditu azaldu eta defendatzeko. Epaimahiko kideek noiznahi ere egiten ahalko dizkiote galderak izangaiari, hizketan ari dela.

Programazio didaktikoa azaltzeko, izangaia egokia iruditzen zaion material osagarria erabil dezake, berak eramanda.

B.2) Unitate didaktikoa prestatu, azaldu eta, bidezko bada, defendatzea.

Unitate didaktiko bat prestatu eta epaimahaiaren aurrean ahoz azaltzeko lana izangaia aurkeztzen duen programazioari loturik egonen da. Unitate didaktikoaren edukia aukeratzeko, izangaia, berak aurkeztu duen programaziotik, hiru unitate aterako ditu zozketaz eta horietako bat aukeratuko du. Unitate didaktiko hori prestatzerakoan, haren bidez

ikaskuntzan lortu nahi diren helburuak zehaztu beharko dira, bai eta haren edukiak, gelan gauzatuko diren ikaskuntza eta irakaskuntza jarduerak eta ebaluazio prozedurak ere.

Berariazko Lanbide Heziketako espezialitateetan, bai Bigarren Hezkuntzako Irakasleen Kidegokoetan bai Lanbide Heziketako Irakasle Teknikoen Kidegokoetan, unitate didaktikoa lan unitateei buruzkoa izaten ahalko da, eta kasuan kasuko lanbide profileko gaitasun unitateei dagozkien amaierako gaitasunekin lotuta egon beharko du.

Bigarren Hezkuntzako Irakasleen Kidegoko Psikologia eta Pedagogiako espezialitatean, programazio didaktikoari buruzko B.1) ariketan izangaia aurkeztutako urteko lan planean sartu diren esku-hartze psikopedagogikoko programetako bati buruzkoa izanen da unitate didaktikoa.

Izangaia ordu bat izanen du unitate didaktikoa prestatzeko.

Unitate didaktikoa azaltzeko, izangaia egokia iruditzen zaion material osagarria erabil dezake, berak eramanda, baita gidoi bat ere (orri bat baino ez), ariketa bukatutakoan epaimahaiari eman beharko diona.

Izangaia gehienez ere hogeita hamar minutu izanen ditu unitate didaktikoa azaldu eta defendatzeko. B.1) eta B.2) ariketak azaldu eta defendatu behar dituzten izangaia ekitaldi bakar batean egingen dute epaimahaiaren aurrean. Epaimahiko kideek noiznahi ere egiten ahalko dizkiote galderak izangaiari, hizketan ari dela.

B.3) Ariketa praktikoa.

Tresnaren bat edo gaitasun teknikoren bat menderatzea eskatzen den espezialitateetan, bigarren zati honetan ariketa praktikoa izanen da, lortu nahi duten espezialitateko arlo, irakasgai edo moduluak emateko behar diren lan teknikak eta prestakuntza zientifikoa badituztela erakusteko.

Ariketa praktikoa honen ezaugarriak eta iraupena deialdiaren VI. eranskinean ageri dira.

8.1.1.2. B.2) ariketaren ordeiz izangaia unitate didaktikoaz dakiena baloratzen duen txostena aurkezte.

A) B.2) ariketaren ordeiz txostena aurkeztu nahi duten izangaiek bete beharreko baldintzak:

a) Deialdia argitaratzen den egunean jardunean edo eszedentzia berezian egotea.

b) Zein kidegotatik parte hartzen den, kidego horretako lanpostu batean gutxienez hiru hilabetez aritu izana, Nafarroako Gobernu Hezkuntza Departamentuarekin aldi bateko administrazio kontratua sinatuta edo beste hezkuntza administrazio batean bitarteko funtzionario izendatuta, 2007/2008 ikasturtean.

Baldintza hori deialdi hau Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen den egunean bete beharko da. Dena dela, 2007-2008 ikasturtean amatasun lizentzia izan dutelako baldintza hori epe horretan betetzen ez duten izangaiek aukera izanen dute B.2) ariketaren ordeiz txostena hautatzeko, baldin eta atal honetan eskatutako baldintza 2008ko ekainaren 1ean betetzen badute.

Unitate didaktiko bat prestatu ahoz azaltzearen ordeiz, unitate didaktikoari buruzko ezagutza baloratzen duen txosten bat aurkezte aurreratu izanen izangaiek horixe adierazi beharko dute eskabidean, ondokoa zehaztuta: 2007/2008 ikasturtean zein hezkuntza administrazio, ikastetxe, kidego eta espezialitatean ari diren. Hautapen prozesuan parte hartzeko eskabidean dagokien laukian adieraziko dute aukera hori, eta ezin izanen da aldatu eskabidea aurkeztu eta gero.

Halaber, izangaiek dagokien hezkuntza administrazioak luzatutako zerbitzu orria erantsi beharko diote eskabideari; eskatutako baldintzak betetzen dituztela azaldu beharko du orri horrek.

Zerbitzuak Nafarroako Gobernu Hezkuntza Departamenturako egin badira, Giza Baliabideen Zerbitzuak ofizioz aurkeztuko du zerbitzuaren orria.

Izangaiek txostenaren aukera hautatu badute eskabidean baina txostena emateko aipatu diren baldintzak betetzen ez badituzte, unitate didaktiko bat prestatu eta ahoz azaltzearen ordeiz unitate didaktikoari buruzko ezagutza baloratzen duen txosten bat aurkezteko aukerarako onartu ez diren zerrendan sartuko dira, eta probako B.2) ariketa egin beharko dute.

B) Jarduketarako prozedura, Nafarroako Gobernu Hezkuntza Departamentuarentzat ari diren izangaien kasuan:

Txosten hori, kasuan kasuko epaimahaiak deialdi honetako seigarren arauko 12. puntuaren bidez esleitutako eginkizunen arabera jatzatu, baloratu eta Oit 10era puntuatuko du. Txostenen honako hau frogatu beharko da gutxienez: unitate didaktikoaren bidez lortu nahi diren ikaskuntza xedeak zehaztea, haien edukiak, gelan egin beharreko irakaskuntza eta ikaskuntza jarduerak eta ebaluazio prozedurak. Txostenaren edukia deialdiaren VIII. eranskinean aipatzen diren nondik norako eta adierazleak bilduko ditu.

Hurrengo bi lerroaldeetan aipatzen diren batzordeek emanen dute txostena.

Batzordeek hiru kide izanen dituzte: izangaia lanean ari deneko ikastetxeko ikuskatzailea edo Zerbitzuak Ikuskatzeko eta Ikuskapen Teknikorako Zerbitzuko zuzendariak izendatutako beste ikuskatzaile bat, batzordeburu lanetan arituko dena; deialdia argitaratzen den egunean lanean ari deneko ikastetxeko zuzendaria, batzordean idazkari lanetan arituko dena; eta batzordekide bat, oposizio-lehiaketan parte hartzen den espezialitateko Departamentu didaktikoko burua. Departamentuko bururik ez badago edo departamentuko burua karrerako funtzionarioa ez bada, ikastetxeko zuzendariak ikastetxean karrerako funtzionario den beste irakasle bat izendatuko du batzordekide.

Aurreko lerroaldean xedatutakoarekin bat osatutako batzorde baten bidez txostena ezin prestatu denean, Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentuan sortuko den batzorde batek prestatuko du txosten hori. Zerbitzuak Ikuskatzeko eta Ikuskapen Teknikorako Zerbitzuko zuzendaria edo honek izendatzen duen ikuskatzailea, Ebaluazio Arloko koordinatzailea eta Zerbitzuak Ikuskatzeko eta Ikuskapen Teknikorako Zerbitzuko zuzendariak izendaturiko beste ikuskatzaile bat izanen dira bertan.

Txostena eskatzen duten eta aukera horretarako onartzen diren izangaiek indarra duen curriculumarekin eta oposizio-lehiaketan parte hartzeko espezialitatearekin bat datorren unitate didaktiko bat aurkeztuko dute, gehienez ere bost egun balioduneko epean, B.2) ariketaren ordeztu txostena aurkezteko aukerarako onartzen diren izangaien behin betiko zerrendak argitaratzen direnetik hasita. Unitate hori, oro har, ikastetxeko zuzendariaren aurrean aurkeztu beharko da.

Izangaia unitate didaktikoaz dakienari buruzko txostena prestatuko da batzordeko kideek horri buruz aurkeztutako informazioan eta aurkeztutako unitate didaktikoaren azterketan oinarriturik. Batzordeko kideek behar dituzten argibideak eskatzen ahalko dituzte, egoki deritzeten baliabideen bidez.

Txostena 2008ko ekainaren 1erako aurkeztu ez bada Giza Baliabideen Zerbitzuan, izangaia B.2) ariketarako dei egingen zaio.

C) Jarduketarako prozedura, Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentuan besteko hezkuntza administrazio batentzat ari diren izangaien kasuan:

Giza Baliabideen Zerbitzuak izangaien eskabidean ageri den hezkuntza administrazioako organo eskudunari eskatuko dio txostena eman dezala.

Aipatutako hezkuntza administrazioak txostena ematen ez badu edo txosten hori 2008ko ekainaren 1erako jasotzen ez bada, B.2) ariketa egin beharko du izangaia.

8.1.1.3. Oposizioaldiaren kalifikazioa.

Probaren zati bakoitza 0 puntutik 10 puntura bitarte kalifikatuko da. Oposizioaldiko orotariko kalifikazioa lortzeko, A zatiak probaren azken puntuazioaren %40 izanen du eta B zatiak %60.

Probako B zatiko ariketa bakoitza 0 puntutik 10 puntura bitarte baloratuko da. B zatiko orotariko kalifikazioa lortzeko, ariketa bakoitzeko puntuazioa honelakoxea izanen da:

I. B.1) eta B.2) ariketak soilik egiten diren espezialitateetan, haietarako bakoitzaren balioa B zatiari emandako balioaren %50 izanen da.

2. Tresnaren bat edo gaitasun teknikoren bat menderatzea eskatzen den espezialitateetan, B.1), B.2) eta B.3) ariketen balioa B zatiari emandako balioaren 1/3 izanen da.

Probaren azken nota eta orotarikoa Orik 10era bitarte adieraziko da.

8.1.1.4. Oposizioaldiko proba bukatutakoan, epaimahaiek azken ariketa egin den tokiko iragarki ohelean eta Hezkuntza Departamentuko iragarki ohelean paratuko dute proban ebaluatutako izangaiek lortutako azken eta orotariko puntuazioak biltzen dituen zerrenda.

Puntuazio horien kontra interesdunek erreklamazioak egin ditzakete, epaimahaiak zuzenduak, 3 egun naturaleko epean. Halakoetan, kalifikazioetan akats materialik edo egitezkorik, transkripziozkoak edo aritmetikorik egin den aztertutako du epaimahaiak.

Erreklamazioen gaineko ebazpena emandakoan, izangaiek proban lortutako behin betiko puntuazioen zerrenda argitaratuko dute epaimahaiak.

Zerrenda horren kontra interesdunek gora jotzeko errekurtsioa jar dezakete, Giza Baliabideen Zerbitzuko zuzendariari zuzendua, eta horren gaineko ebazpena ematerakoan kontuan hartuko da epaimahaiaren jarduketan ageriko akatsik, arbitrariorik edo agintearen desbiderapenik izan den.

8.1.2. Bigarren Hezkuntzako Irakasleen Kidegora igotzeko prozedurarako oposizioaldia:

Oposizioaldian proba bakar bat izanen da, izangaia irakasgaiari eta baliabide didaktiko zein pedagogikoei buruz duen ezagutza baloratuko da proba horretan, eta bi zati izanen ditu:

A) Parte hartzen duten espezialitateko gai bat ahoz azaldu eta ondoren horren gaineko eztabaida egingen da, hori ere ahoz. Gai hori izangaia aukeratuko du, espezialitateko gai zerrendatik epaimahaiak zozketaz ateratako zortzi gairen artean, deialdiko V. eranskinean adierazitakoari jarraikiz. Oposizioarako erabiltzen den titulazio akademikoa eta lortu nahi den espezialitatea bat badatoz, gai hori epaimahaiak zozketaz ateratako bederatz gairen artean aukeratuko du izangaia.

Azalpena gaiaren planteamendu didaktiko batez osatuko da, eta hori izangaia bakoitzak aukeratutako ziklo edo kurtso bati buruzkoa izanen da.

Izangaia bi ordu izanen ditu prestatzeko, eta egokia iruditzen zaion material osagarria erabiltzen ahalko du. Halaber, prestatuta denboran eginko gidoi bat erabiltzen ahalko du azalpenean. Gidoi hori orri batekoa izanen da gehienez, eta proba bukatutakoan epaimahaiari emanen zaio. Gaiaren azalpena eta planteamendu didaktikoa egiteko berrogeita bost minutu izanen ditu gehienez. Gehienez ere hamabost minutu iraunen du eztabaidak.

B) Eduki praktikorekin zati, deialdi honetako VI. eranskinean zehaztutako espezialitateetan soilik egingen dena.

Probaren zati praktikoa ez dute egin beharko lortu nahi duten espezialitate berari atxikita dauden izangaiek, ez eta atxikita daudeneko lanbide arlo bereko espezialitate batera jotzen dutenek ere.

Proba zero puntutik hamar puntura bitarte baloratuko da, eta izangaiek gutxienez ere bost puntu lortu beharko dituzte gaintzeko.

Probak bi zati baldin baditu, oposizioaldiko puntuazioa honela banatuko da: zati praktikoa %30 izanen du eta gaiaren azalpen eta eztabaidaren zatiak %70.

8.1.3. Oposizioaldiko ariketa bakoitzean, sarbide irekiko eta minusbaliatuen erreserbako prozedura bada, edo proban, igotze prozedura bada, izangaia bakoitzaren puntuazioa ateratzeko bertan dauden mahaikide guztien kalifikazioen batez besteko aritmetikoa kalkulatu da. Mahaikideek emandako puntuazioen artean hiru puntu oso edo gehiagoko aldea baldin badago, puntuaziorik altuena eta baxuena, berterik gabe, ezabatu egingen dira, eta gainerako kalifikazioekin aterako da batez bestekoa.

8.1.4. Otsailaren 5eko 182/1993 Errege Dekretuak ezartzen duenez (46. "Estatuko Aldizkari Ofiziala", otsailaren 23koa), nazioarteko erakundeetako funtzionarioak izan eta nazionalitate espainiarra duten izangaia salbuetsirik egonen dira Homologazioarako Batzorde Iraunkorraren (errege dekretu horretan sortuaren) arabera nazioarteko erakunde horretan jatorrizko lanpostuetan aritzeko eskatutako ezagupenak egiaztatzeko xedea duten probak egiteak.

Horretarako, otsailaren 23ko 182/1993 Errege Dekretuaren 7. artikuluan aurreikusitako homologazio ziurtagiria aurkeztu beharko da, izangaia hautapen prozesuan parte hartzeko aurkeztu duen eskabidearekin batera.

Salbuetsirik daudela-eta, izangaiek egin behar ez dituzten ariketetan, deialdiak kasuan kasuko ariketari esleitutako puntuazio osoaren erdia emanen da.

Interesdunek zilegi izanen dute kalifikazio horri uko egin eta salbuetsi diren ariketetan parte hartzea, sarbide irekiko edo minusbaliatuen erreserbako prozeduran parte hartzen duten gainerako izangaien baldintza beretan. Uko hori izangaia onartu eta baztertuen behin betiko zerrendak argitaratu eta hurrengo hiru egun baliodunetan egin beharko da. Ukoak Hezkuntza Departamentuko Giza Baliabideen Zerbitzuari zuzendu eta hirugarren arauko 7. puntuan aurreikusitako edozein lekutan aurkeztuko dira.

8.2. Lehiaketaldia.

Izangaia onartu eta baztertuen behin betiko zerrendak onetsi ondoren, izangaiek frogatutako merezimenduak baloratuko dira, deialdi honetako I. eta II. eranskinetako baremoei jarraikiz.

Sarbide irekiko prozeduran, aurretik egindako irakasle lana, prestakuntza akademikoa eta etengabea eta beste merezimendu batzuk hartuko dira merezimendutzat. Bestalde, igotze prozeduran merezimendutzat hartuko dira egindako lana, prestakuntza eta hobekuntza ikastaroak eta merezimendu akademikoa eta beste batzuk.

Deialdiko I. eta II. eranskinetan jasotako baremoen arabera izangaiei dagokien puntuazioa honako hauek emanen dute:

–Eranskinetako I. atalari dagokionez, Giza Baliabideen Zerbitzuari atxikitako langileek.

–Eranskinetako II. eta III. atalei dagokienez, arau honetan aipatzen diren balorazio batzordeek.

Organo horiek hautapen organoen izenean egingen dute balorazioa eta, oposizioaldia bukatutakoan, emaitzak helaraziko dizkiete.

Balorazio batzorde bat eratuko da, honako hauek osaturik: batzordeburua, hezkuntza arloko ikuskatzailetzan ari diren funtzionarioen edo Bigarren Hezkuntzako Irakasleen, Lanbide Heziketako Irakasle Teknikoen edo Hizkuntza Eskola Ofizialetako Irakasleen Kidegoko funtzionarioen artean hautatua, kasuaren arabera, eta gutxienez lau batzordekide, Bigarren Hezkuntzako Irakasleen, Lanbide Heziketako Irakasle Teknikoen edo Hizkuntza Eskola Ofizialetako Irakasleen Kidegoetako funtzionarioak.

Erakunde sindikalek balorazio batzordeetan parte hartzen ahal dute.

Balorazio batzordeetako kide izendatzen diren funtzionarioek ez dute parte hartu beharko epaimahaiko kideak izendatzeko zozketan, deialdiko seigarren arauan aipatzen den horretan, non ez den ezi-nezkoa, espezialitateko titularren kopurua ikusita, espezialitatearen printzipioa bermatzea hautapen organoak eratzean.

Giza Baliabideen Zerbitzuak baremoetako atal guztien puntuazioak batuko ditu eta merezimenduen behin-behineko balorazioak onesten dituen ebazpena argitara emanen du Hezkuntza Departamentuko Argibide eta Agiri Bulegoan eta Hezkuntza Departamentuaren webgunean: www.pnte.cfnavarra.es. Aldi berean, Giza Baliabideen Zerbitzuak aurkeztutako zerbitzuak jendaurrean jarriko dira, parte hartzeko eskabidean izangaiek aurretik hala eskatu badute.

Balorazio horien kontra interesdunek erreklamazio idazkia aurkeztzen ahalgo dute Giza Baliabideen Zerbitzuko zuzendariari zuzendua, jendaurrean jarri eta biharamunetik bost egun balioduneko epean.

Erreklamazioak aurkezteko epea amaitu eta horiek ebatzi ondoren, merezimenduen behin betiko balorazioak onesten dituen ebazpena argitaratuko da.

Oposizioaldian bost puntu edo gehiago lortu dituztenen kasuan soilik batuko dira lehiaketaldiko eta oposizioaldiko puntuazioak.

Bederatzigarrena.–Oposizio-lehiaketa gainditzea.

9.1. Sarbide irekiko eta minusbaliatuen erreserbako prozedurak:

Praktikaldira pasatzeko hautatuko dira, hautapen batzordeek oposizioaldiko eta lehiaketaldiko puntuazio osoen arabera ordenatu ondoren, prozedura bakoitzean kasuan kasuko kidego, espezialitate eta hizkuntzako lanpostu kopuruaren arabera hurrenkera zenbakia edo txikiagoa duten izangaiek.

Oposizioaldiko eta lehiaketaldiko puntuazioen ponderazioa, puntuazio orokorra osatzeko, honako hau izanen da: %60 oposizioaldirako eta %40 lehiaketaldirako.

9.2. Bigarren Hezkuntzako Irakasleen Kidegora igotzeko prozedurak.

Prozedura hau gaindituko dute eta, beraz, hautatu egingen dira, proba gainditu eta lehiaketaldian eta proban lortutako puntuazioen baturaren arabera ordenaturik, eskaintako lanpostu hutsen kopuruaren arabera hurrenkera zenbakia edo txikiagoa eskuratzen duten izangaiek.

Oposizioaldiko eta lehiaketaldiko puntuazioen ponderazioa, puntuazio orokorra osatzeko, honako hau izanen da: %55 oposizioaldirako eta %45 lehiaketaldirako.

9.3. Hautatutako izangaiei zerrendak argitaratzea:

Oposizioaldiko balorazioa egin ondoren, hautapen prozesu bakoitzean oposizioaldia gainditu duten izangaiei zerrenda prestatuko dute hautapen organoek, bakoitzaren nortasun agiri nazionala adierazita, puntuaziorik altuenetik baxuenera ordenatuak, hamar-milarenak ere adierazita, gero oposizioaldiko eta lehiaketaldiko puntuazioak batu, izangaiek lortutako guztirako puntuazioen arabera ordenatu, bi aldiak gainditu dituzten izangaiei zerrendak prestatu, oposizioaldia eta lehiaketaldia gainditu dituzten izangaiek aldarrikatu, zerrendak argitaratu eta organo dei-egileari igotzeko.

Hautapen organoek, hautapen prozedurak gainditu dituzten izangaiek zehaztu ondoren, zerrenda bakarra prestatuko dute eta bertan agertuko dira, lehenik, talde desberdineko kidegoetatik abiatutako igotze prozedurako izangaiek eta, bigarrenik, sarbide irekiko prozedurakoak. Minusbaliatuen erreserbako izangaiek bigarren taldean sartuko dira, beren puntuazioaren arabera. Talde horietako bakoitzaren barruan, aurreko arauetan ezarritakoari jarraituz ordenatuko dira hautatutako izangaiek.

Zerrenda hau prestatzerakoan berdinketarik gertatuz gero, horien artean lehentasuna zeinek duen zehazteko irizpide hauek hartuko dira aintzat:

A) Sarbide irekiko eta minusbaliatuen erreserbako prozeduren bidez parte hartzen duten izangaiei kasuan:

1) Oposizioaldian puntuaziorik altuena.

2) Oposizio probako ariketa bakoitzean puntuaziorik altuena, deialdian duten hurrenkeraren arabera.

3) Merezimenduen baremoko atalean puntuaziorik altuena, deialdian ageri den hurrenkeraren arabera.

4) Merezimendu baremoko azpiataletan puntuaziorik altuena, deialdian ageri den hurrenkeraren arabera.

Irizpide horiek aplikatuta ere berdinketa hausten ez bada, epaimahaia bosgarren irizpide bat aplikatuko du; hots, zozketa egingen du puntuazio berbera duten izangaiei artean.

B) Bigarren Hezkuntzako Irakasleen Kidegora igotzeko prozeduraren bidez parte hartzen duten izangaiei kasuan:

1) Proban puntuaziorik altuena.

2) Merezimenduen baremoko atal bakoitzean puntuaziorik altuena, deialdian duten hurrenkeraren arabera.

3) Merezimenduen baremoko azpiataletan puntuaziorik altuena, deialdian ageri den hurrenkeraren arabera.

Irizpide horiek aplikatuta ere berdinketa hausten ez bada, epaimahaia laugarren irizpide bat aplikatuko du; hots, zozketa egingen du puntuazio berbera duten izangaiei artean.

Sarbide irekiaren hautapen prozedura gainditu duten izangaiek zehazterakoan, gainerako prozeduretan bete gabe gelditzen diren lanpostuak prozedura honi hasieran esleitutako lanpostuei gehituko dizkiete hautapen organoek.

Ezin izanen da deklaratu, inolaz ere, hautapen prozesua lanpostu kopurua baino izangai gehiago gainditu dutela.

Probak gainditu dituztenen zerrenda bakarrak, kidegoaren, espezialitatearen eta hizkuntzaren arabera, Hezkuntza Departamentuko Giza Baliabideen Zerbitzuko zuzendariaren ebazpen bidez onetsiko dira, eta Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratuko da ebazpen hori. Zerrenda horien kontra interesdunek gora jotzeko errekurtoa aurkeztzen ahal dute, Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariari zuzendua, Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta biharamunetik hasita hilabetezko epean.

Hautapen prozesuaren antolaketa sistemak ahalbidetzen badu izangaiek kidego bereko edo kidego desberdinetako espezialitate batean baino gehiagotan parte hartzea, bi kasu suertatzen ahal dira:

–Hautapen prozesua kidego bereko bi espezialitate edo gehiagotan gainditzeko izangaiek lanpostu horietako bat aukeratu beharko dute, Giza Baliabideen Zerbitzuko zuzendariari igorritako eskabide orriaren bitartez, prozesua gainditu duten izangaiei zerrendak Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta bost egun balioduneko epean. Praktikaldian gai direla deklaratu gero, hautapen prozeduran gainditutako espezialitate guztiengatik sartuko dira kidegoan.

–Hautapen prozesua kidego desberdinetako bi espezialitate edo gehiagotan gainditzeko izangaiek kidego horietako batean gainditutako espezialitateari dagokion praktikaldia egitea hautatu beharko dute, eta beste lanpostuko edo lanpostuetako praktikaldia luzatzeko eskaera egin, hori guztia bost egun balioduneko epean, prozesua gainditu duten izangaiei zerrendak Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen denetik hasita.

Deialdi honen bidez onetsitako oposizio-lehiaketa gainditzeko izangaiek, baldin eta kidego berean beste hezkuntza administrazio batean sartzeko hautapen prozesua ere gainditzeko batean praktiketako funtzionario azken horretan izendatzea hautatzen badute, Giza Baliabideen Zerbitzuko zuzendariari zuzendutako eskabidea aurkeztu beharko dute bost egun balioduneko epean, prozesua gainditu duten zerrenda argitaratzen denetik hasita, deialdi honetan parte hartzeagatik izaten ahal dituzten eskubide guztiei uko egiteko. Uko egiten ez badute, praktiketako funtzionario izateko izendapena onartzeak oposizio-lehiaketa honi isilbidez uko egiten diotela esan nahiko du.

Hamargarrena.–Praktiketako funtzionario izendatzea.

1. Ez dute praktikaldia egin beharko igotze prozeduraren bidez hautatutako izangaiek.

Praktikalditik salbuetsi diren izangai hautatuek jatorrizko kidegoetan jarraituko dute, hautapen prozeduretako espedienteak onetsi eta ondoren karrerako funtzionario izendatu bitarte.

Hautapen prozesuak gainditu eta dagoeneko irakaskuntzako karrerako funtzionario gisa Administrazioan ordainpeko lanean ari diren izangaiek, indarreko araudiaren arabera bakoitzari dagokion administrazio edo lan egoerari kalterik eragin gabe, adierazi beharko dute, arau honetan ezarritako epean, zein ordainketa aukeratu nahi duten praktikaldiko funtzionario diren bitartean, praktiketako funtzionarioen ordainsariak finkatzen dituen otsailaren 10eko 456/1986 Errege Dekretuak, otsailaren 21eko 213/2003 Errege Dekretuaren bidez aldatuak, ezartzen duen moduan.

Praktikaldia egiteki salbuetsirik egon arren, esleitutako destinoan praktiketako funtzionario gisa sartzeko eskatu duten izangaiei ez zaie ebaluaziorik egingen, eta egoera horretan jarraituko dute, hautapen prozeduretako espedienteak onetsi eta ondoren karrerako funtzionario izendatu bitarte. Aukera hori egin beharko da prozesua gainditu duten zerrendak Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta bost egun balioduneko epean.

Halaber, ez dute praktikaldiko ebaluaziorik jaso beharko, gutxienez ikasturte batez karrerako irakasle funtzionario gisa aritu diren izangai hautatuek, baldin eta zerbitzu horiek frogatzen badituzte.

2. Hautatutako izangaiak praktiketako funtzionario izendatuko ditu Hezkuntza Departamentuak (salbuetsita ez badaude, edo salbuetsita egon arren praktiketara joateko erabakia hartzen badute), eta horiek egiteko destinoa emanen die zerbitzuaren beharrak kontuan izanik, lortu duten kidegoko, espezialitateko edo hizkuntzako lanpostu hutsetan edo behin-behineko ordezkapenetan edo, kasua bada, antzeko espezialitateetan. Jakinarazpena jaso eta handik bost eguneko epean izendatuek aipatu destinoak hartzen ez baldin badituzte, hautaprobei uko egiten dietela ulertuko da.

3. Praktikaldia egiteko esleitzen zaien destinoa behin-behinekoa izanen da. Bigarren Hezkuntzako Irakasleen Kidegora igotzeko prozeduraren bidez hautatutako izangaiak, baldin eta praktikaldia egitea hautatzen badute, lehentasuna izanen dute destinoak lortzerakoan, deialdi honetako prozedura irekiko izangaien aurretik, eta esleipen hori hautapen prozeduran lortutako puntuazioari jarraikiz eginen da.

Praktiketako funtzionario izendatutako izangaiak eta, praktikaldia egiteko salbuetsita egon arren, jatorrizko kidego edo lanpostuetan gelditzea aukeratu duten izangai hautatuak beharturik egonen dira lehenbiziko behin betiko destinoa Hezkuntza Departamentuak zuzenean kudeatzen duen ikastetxeren batean eskuratzerako. Lanpostuak betetzeko lehiaketetan parte hartu ahal izateko kasuan kasuko deialdiak xedatzen duenari jarraikiko zaio.

4. Aurreko atalean xedatutakoa gorabehera, igotze prozeduraren bidez hautatutako izangaiak, baldin eta, Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentuaren kudeaketa esparruan, behin betiko moduan eta kidego eta espezialitate berean zerbitzuak ematen ari badira, destino berean segitzea aukeratzen ahalko dute. Aukera hori adierazteko epea 5 egun naturalekoa izanen da, prozesua gainditu dutenen zerrenda Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta biharamunetik hasita.

Aukera hori adierazten ez badute, ulertuko da jatorrizko kidegoan esleiturik duten destinoan berean gelditzeari uko egiten diotela eta, orduan, arau honetako 3. atalean xedatutakoa aplikatuko zaie.

Hamakagarrena.—Praktikaldia.

1. Praktikaldiaren xedea hautatzen diren izangaiak irakasle lane-rako duten gaitasuna neurtzea da.

2. Praktikaldia irakasle baten tutoretzapean eginen da, Giza Baliabideen Zerbitzuko zuzendariak praktikaldia arautzeko emanen duen ebazpenean xedatutakoari jarraikiz.

3. Praktikaldian zuzeneko irakaskuntza aldi bat izanen da, bai eta izangaiak egin beharreko prestakuntza ikastaroak ere.

Batzorde kalifikatzaileak eginen du azken ebaluazioa, praktikaldia arautzen duen ebazpenak ezartzen dituen irizpideen arabera, eta "gai" edo "ez gai" kalifikazioa emanen du.

4. Praktikaldian "ez gai" kalifikazioa hartzen dutenek praktikaldia errepikatzeo aukera izanen dute, behin bakarrik, hurrengo promozioan hautatutakoekin batera arituz, eta, horretan, beren espezialitateko azkenaren ondorengo hurrenkera zenbakia izanen dute. Ezin badute hurrengo promozioan sartu urte horretan ez delako deialdirik egin kidego eta espezialitate berean sartzeko hautapen prozedurarako, "ez gai" kalifikatu zituzten ikasturtearen ondorengoan eginen dute praktikaldia. Sartzen ez direnek edo bigarren aldiz "ez gai" ateratzen dutenek karre-rako funtzionario izendatzeko eskubide guztiak galduko dituzte.

5. Praktiketako funtzionario izateko izendapena jaso eta karrerako funtzionario izendatu bitartean, izangaiak praktiketako funtzionarioen araubide juridiko-administratiboa izanen dute, betiere irakasle lanpostu batean arituz gero.

6. Praktikaldian, praktiketako funtzionarioei azterketa medikoa eginen zaie, irakaslanean modu egokian aritzeko beharrezkoak diren baldintza fisiko eta psikikoak betetzen dituzten egiaztatu ahal izateko. Azterketa mediko hori gainditzan ez dutenek karrerako funtzionario izendatzeko eskubide guztiak galduko dituzte, Giza Baliabideen Zerbitzuko zuzendariak emanen duen ebazpenaren bidez.

Hamabigarrena.—Karrerako funtzionario izendatzea.

1. Praktikaldia bukatu ondoren eta "gai" kalifikazioa jasotzen duten izangai guztiek deialdian ezarritako baldintza orokorrak eta berariazkoak betetzen dituztela egiaztatuz, Giza Baliabideen Zerbitzuko zuzendariak, Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu beharreko ebazpen baten bidez, oposizio-lehiaketako espediente onetsiko du.

2. Halaber, probak gainditu dituzten izangaien zerrendak Hezkuntza eta Zientzia Ministeriora igorriko dira, Bigarren Hezkuntzako Irakasleen Kidegoko, Lanbide Heziketako Irakasleen Kidegoko eta Hizkuntza Eskola Ofizialetako Irakasleen Kidegoko karrerako funtzionario tituluak luza ditzan.

3. Izendapenaren ondorioak praktiketako funtzionario izendatu eta hurrengo ikasturteko lehen egunetik aurrera hasiko dira.

4. Hautapen prozesua gainditzan duten izangaiak Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentuaren kudeaketa esparruan izan beharko dute lehenbiziko behin betiko destinoa eta, horretarako, deitzen

diren hurrengo lekualdatze lehiaketetan parte hartu. Betebehar horretatik salbuetsirik daude destinoa hamargarren arauko 4. atalean xedatutakoaren arabera berretsi duten Bigarren Hezkuntzako Irakasleen Kidegoko funtzionarioak.

Hamahirugarrena.—Aldi baterako kontratazioarako izangaien zerrendak.

Hezkuntza kontseilariak irailaren 23ko 156/2005 Foru Agindua aldatzeko abenduaren 27an emandako 228/2007 Foru Aginduan xedatutakoarekin bat, aldi baterako kontratazioarako izangaien zerrenda bat eginen da, oposizioaldiko proba gainditurik ere, hautapen prozedura gainditu ez duten izangaiak.

Izangai horiek oposizioaldiaren eta lehiaketaldiaren batura pondetatuaren bidez lortutako puntuazioaren arabera antolatuko dira, kidego, espezialitate eta hizkuntza bakoitzari dagokion zerrendaren barruan.

Hamahirugarrena.—Errekurtsioak.

Epaimahaiak ematen dituen egintza eta ebazpenen kontra gora jotzeko errekurtsioa paratzen ahal da Giza Baliabideen Zerbitzuko zuzendariari zuzenduta, errekurtsioaren xede den egintza argitaratu edo jakinarazi eta biharamunetik hilabeteko epean.

Ebazpen honen eta bere eranskinen aurka gora jotzeko errekurtsioa aurkezten ahalko da, Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariari zuzendua, hilabeteko epean, argitaratu eta biharamunetik aurrera.

Hori guztia Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari buruzko abenduaren 3ko 15/2004 Foru Legearen 57. artikuluekin bat, eta urtarilaren 13ko 4/1999 Legeak aldatutako Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 114. eta 115. artikuluei jarraikiz.

Iruñean, 2007ko abenduaren 28an.—Giza Baliabideen Zerbitzuko zuzendaria, Begonia Unzué Vela.

I. ERANSKINA

Bigarren Hezkuntzako Irakasleen, Lanbide Heziketako Irakasle Teknikoen eta Hizkuntza Eskola Ofizialetako Irakasleen Kidegoetan sartzeko merezimenduen balorazioarako baremoa

Izangaiak gehienez ere 10 puntu lortzen ahalko dituzte beren merezimenduengatik.

I.—Irakasle lanean emandako zerbitzuak (7 puntu gehienez).

1.1. Izangaiaren helburu den kidegoko espezialitateetan, ikastetxe publikoetan, irakasle lanean emandako urte bakoitzeko: 0,700 puntu.

Atal honetan aipatzen diren lanpostuetan emandako hilabete edo urteko zatiki bakoitzeko: 0,0583 puntu.

1.2. Izangaiaren helburu den kidegoaz besteko kidegoetako espezialitateetan, ikastetxe publikoetan, irakasle lanean emandako urte bakoitzeko: 0,350 puntu.

Atal honetan aipatzen diren lanpostuetan emandako hilabete edo urteko zatiki bakoitzeko: 0,0292 puntu.

Egiaztagiriak: emandako zerbitzuen ziurtagiria, hezkuntza administrazio eskudunak luzatua. Kasu guztietan adierazi behar da zein kidegotarako izendatu zen, baita zerbitzuak hasi eta bukatu zireneko data zehatzak ere. Ziurtagiri horietan ez bada adierazten zerbitzuak ikastetxe publikoetan eman direla, aipatu zerbitzuak bestelako ikastetxeetan emanak bailiran baloratuko dira, hots, 1.3 edo 1.4 ataletan ezarritakoaren arabera, kasuan-kasuan. Ez dira onartuko jabetza hartzeko eta zerbitzuak uzteko orriak.

Giza Baliabideen Zerbitzuak, izangai bakoitzaren espediente pertsonalean dagoen dokumentazioari jarraikiz, Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentuarentzat eginko zerbitzuak ofizioz gehituko ditu, izangaiak parte hartzeko eskabidean hala eskatzen badu.

Hezkuntza eta Kultura Ministerioaren Nafarroako Zuzendaritza Probintzialerako 1990eko urriaren 1a baino lehen eginko zerbitzuen ziurtagiria interesdunek espresuki aurkeztu beharko dute.

1.3. Izangaiaren helburu den kidegoko hezkuntza maila bereko espezialitateetan, beste ikastetxe batzuetan, irakasle lanean emandako urte bakoitzeko: 0,150 puntu.

Atal honetan aipatzen diren lanpostuetan emandako hilabete edo urteko zatiki bakoitzeko: 0,0125 puntu.

1.4. Izangaiaren helburu den kidegoko beste hezkuntza maila bateko espezialitateetan, beste ikastetxe batzuetan, irakasle lanean emandako urte bakoitzeko: 0,100 puntu.

Atal honetan aipatzen diren lanpostuetan emandako hilabete edo urteko zatiki bakoitzeko: 0,0083 puntu.

Egiaztagiriak: ikastetxearen ziurtagiria, Zerbitzuak Ikuskatzeko eta Ikuskapen Teknikorako Zerbitzuaren oniritziarekin, bertan hezkuntza maila eta zerbitzuen benetako iraupena ageri direla, hasi eta bukatu zireneko data zehatzak adierazita. Ziurtagiri horiei oniritzia emateko, Zerbitzuak Ikuskatzeko eta Ikuskapen Teknikorako Zerbitzuak interesdunei eskatuko die Gizarte Segurantzaren kotizazio ziurtagiria eta kontratuak aurkez ditzatela.

I. atalerako oharra:

1. Ez dira kontuan hartuko interesdunek sinatutako kontratuen fotokopien bidez soilik frogatzen diren zerbitzuak, ezta ikastetxe pribatuek edo udal ikastetxeek emandako ziurtagiriak ere, nahiz eta Gizarte Segurantzari kotizatutakoaren ziurtagiriak erantsi, bertan Zerbitzuak Ikuskatzeko eta Ikuskapen Teknikorako Zerbitzuaren oniritzia agertzen ez bada.

2. Ez dira kontuan hartuko zerbitzuak hasi eta bukatu zireneko data zehatzak ez dituzten ziurtagiriak, nahiz eta bertan adierazi zerbitzuaren iraupena ikasturte batekoa izan dela.

3. Zerbitzuak zein kidego edo mailatan eman diren zehazten ez bada, beste kidego edo hezkuntza maila batean emandakotzat joko dira.

4. Atzerrian emandako zerbitzuak dagokion herrialdeko Hezkuntza Ministerioak edo Espainiar Estatuak Atzerrian duen Administrazio Orokorra emandako ziurtagiriaren bidez egiaztatuko dira. Bertan ondokoa adierazi behar da: eman den hezkuntza maila, zerbitzuaren iraupena, horiek hasi eta bukatu zireneko data zehatzak eta ikastetxearen izaera (publikoa edo pribatua). Ziurtagiri horiek gaztelaniara itzulita ekarri behar dira. Zinpeko itzultzaileek egin behar dituzte itzulpen horiek.

5. Unibertsitateko irakasle esperientzia frogatzeko ikastetxearen ziurtagiria behar da. Bertan ondokoa adieraziko da: zerbitzuak noiz hasi eta bukatu ziren, data zehatzak adierazita, zerbitzu horiek irakasle lanekoak izan zirela eta ikastetxearen izaera (publiko edo pribatua).

6. Ikastetxe publikoak Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren IV. tituluko II. kapituluan aipatzen direnak dira, hezkuntza administrazioek sortu eta sostengatutako ikastetxeen sare publikoan sarturik daudenak.

7. Toki administrazio bat titular duten ikastetxeetan emandako zerbitzuak (Udalen Musika Eskolak, Haur Eskolak, Udal Ikastolak eta antzekoak) toki entitate horrek luzatuko duen eta Zerbitzuak Ikuskatzeko eta Ikuskapen Teknikorako Zerbitzuaren oniritzia izan den ziurtagiri baten bidez frogatuko dira, eta ondokoa azalduko da bertan: hezkuntza maila eta zerbitzuaren benetako iraupena, horiek hasi eta bukatu zireneko data zehatzak adierazita. Ziurtagiri horiei oniritzia emateko, Zerbitzuak Ikuskatzeko eta Ikuskapen Teknikorako Zerbitzuak interesdunei eskatuko die Gizarte Segurantzaren kotizazio ziurtagiria eta kontratuak aurkez ditzatela.

8. Nafarroako Foru Komunitateari transferitutako udal ikastetxeetan emandako zerbitzuak, transferitu aurrekoak, 7. atalean zehaztutako moduan frogatuko dira.

9. Atal honen ondorioetarako, puntuak ezin izanen dira pilatu zerbitzuak aldi berean ikastetxe batean baino gehiagotan eman badira.

II.-Prestakuntza akademikoa eta etengabea (4 puntu gehienez ere).

2.1. Alegatutako tituluari dagokion espediente akademikoa:

Atal honetan izangaiak alegatutako tituluari dagokion espediente akademikoko batez besteko nota soilik baloratuko da, betiere alegatutako titulua bat heldu bada izangaiaren helburu den kidegoan sartzeko orokorrean eskatzen den titulazio mailarekin (doktore, lizentziadun, ingeniari edo arkitekto titulua A mailako irakasleen kidegorako, edo unibertsitateko diplomadun, ingeniari tekniko edo arkitekto tekniko titulua B mailako irakasleen kidegorako), honela zehaztuta:

2.1.1. 6 puntutik 7 puntura bitarte: puntu 1,000.

2.1.2. 7 puntutik 8,5 puntura bitarte: 1,250 puntu.

2.1.3. 8,50 puntutik 10 puntura bitarte: 1,500 puntu.

Zenbateko zehatza agertzen ez den kasuetan batez bestekoa ondoko baliokidetzen arabera aterako da:

—Nahikoa: 5,5 puntu.

—Ongi: 6,5 puntu.

—Oso ongi: 7,5 puntu.

—Bikain: 9 puntu.

—Ohorezko matrikula: 10 puntu.

Egiaztagiria: izangaiak ziurtagiri akademiko pertsonala, jatorrizkoa edo fotokopia konpultsatua, igorri behar du; alegatutako titulua lortzeko irakasgai eta kurso guztietako puntuazioak azalduko ditu, bai halaber, kasuan kasuko ikasketa planaren planari buruzko bakoitzari esleututako kreditu kopurua, horrelakorik baldin badago.

Ez da kontuan hartuko ziurtagiri akademikoan agertzen den batez besteko nota, irakasgaien puntuazioak zenbaki bidez adierazita ez daudenean. Horrelakoetan arestian aipatu baliokidetzen arabera lortuko da.

Irakasgaien arabera antolatutako ikasketa planak direnean, batez besteko nota ateratzeko, puntuazio guztien batuketaren emaitza zati irakasgaien kopurua egiten da. Kredituen bidez antolatutako ikasketa planak direnean, izangaiaren espediente akademikoko batez besteko puntuazioa ateratzeko formula hau erabiliko da: izangaiak lortutako kredituen batuketa, horietako bakoitza kasuko kalifikazioen balioarekin

biderkatuta, zati guztira lortutako kreditu kopurua, irailaren 5eko 1125/2003 Errege Dekretuan ezarritakoaren arabera.

Ondorio horietarako, praktiketako notak irakasgai baten balioa izanen du.

Espedientearen irakasgai konbalidatuak edo "gai" kalifikazioa dutenak azaltzen badira, ez dute inolako baliokide izanen, baldin eta lehiatzaileak ez badu aurkezten konbalidatutako edo "gai" gisa kalifikatutako irakasgaiaren zenbakizko balioa azaltzen duen ziurtagiria.

Ikasketa planaren barrenean ez dauden prestakuntza jardueren bidez lortutako kredituak ez dira zenbakitara ekarriko, eta ez dira aintzat hartuko ikasketa espedientearen batez bestekoa ateratzeko.

Atal honetan ez da inolaz ere baloratuko izangaiak alegatutako titularen espediente akademikoa, baldin eta titulu hori irakaskuntzarako baliokidetzat hartu bada eta irakaskuntzako funtzio publikoan sartzeko bidea eman badu.

Irizpide horiek atzerriko titulu homologatuei ere aplikatuko zaizkie, eta horien ziurtagiri akademikoa zinpeko itzulpenarekin aurkeztu behar da.

2.2. Graduondoa, doktoretza eta aparteko sariak:

2.2.1. Ikasketa aurreratuaren ziurtagiri-diplomagatik (apirilaren 30eko 778/1998 Errege Dekretua), master titulu ofizialagatik (urtarrilaren 21eko 56/2005 Errege Dekretua), ikertzeko nahikotasunagatik edo beste edozein titulu baliokiderengatik, irakaskuntzarako funtzio publikoan sartzeko betebeharrak ez badira, puntu 1,000.

2.2.2. Doktore titulua izateagatik: puntu 1,000.

2.2.3. Doktoretzan aparteko saria lortzeagatik: 0,500 puntu.

Egiaztagiria: titularen fotokopia konpultsatua edo, hala badagokio, ziurtagiri-diploma edo titulua emateko eskubideak ordaindu izanaren egiaztagiria.

2.3. Unibertsitateko beste titulazio batzuk:

Unibertsitateko titulazio ofizialak, irakaskuntzako funtzio publikoan sartzeko baldintzak direla-eta alegatutakoak ez badira, honela baloratuko dira:

2.3.1. Lehen zikloko titulazioak:

Diplomatura, Ingeniaritza Tekniko edo Arkitektura Teknikoko titulu bakoitzeko edo lege baliokide diren tituluak eta Lizentziatura, Arkitektura edo Ingeniaritza bateko lehen zikloari dagozkion ikasketak: puntu 1,000.

Atal honetan ez dira inolaz ere baloratuko, B mailako irakasle funtzionarioen kidegoetarako izangaien kasuan, izangaiak aurkezten duen lehen titulua edo era horretako ikasketak.

Atal honetan ez dira inolaz ere baloratuko, A mailako irakasle funtzionarioen kidegoetarako izangaien kasuan, izangaiak aurkezten duen lizentziadunaren, arkitektoaren edo ingeniariaren lehenbiziko titulua lortzeko gainditu behar diren ikasketen titulua edo era horretako ikasketak.

2.3.2. Bigarren zikloko titulazioak:

Lizentziatura, Ingeniaritza edo Arkitekturako bigarren zikloko ikasketak edo lege baliokide diren tituluak dagozkienak: puntu 1,000.

Atal honetan ez dira inolaz ere baloratuko, A mailako irakasle funtzionarioen kidegoetarako izangaien kasuan, izangaiak aurkezten duen lizentziadunaren, arkitektoaren edo ingeniariaren lehenbiziko titulua lortzeko gainditu behar diren ikasketak (lehen zikloa, bigarren zikloa edo, hala badagokio, irakaskuntza osagarriak).

Egiaztagiria: kidegoan sartzeko alegatutako titularen fotokopia konpultsatua, bai eta merezimendu gisa alegatzen diren guztiena ere edo, hala denean, titulua eskuratzeko eskubideak ordaindu izanaren ziurtagiria.

Lehen zikloko titulazioak puntuatuko badira, ezinbestekoa izan den diplomatura titularen fotokopia aurkeztea edo, bestela, lizentziatura, ingeniari edo arkitektura bateko lehenbiziko hiru kursoetako irakasgaiak egin eta gainditu direla azalduko duen ziurtagiri akademiko pertsonala. Egokitzapen kurtsoa gainditzea ez da hartuko lehen zikloko titulaziotzat.

Lizentziadun, ingeniari edo arkitekto titularen fotokopia aurkezten bada, aintzat hartuko dena bigarren zikloko titulazioari dagokion puntuazioa izan den soilik, salbu eta aurreko atalean aipatzen den ziurtagiri akademikoa aurkezten bada 2.3.1. atalaren arabera baloratuko.

2.4. Araubide bereziko irakaskuntzako eta berariazko lanbide heziketako titulazioak:

Hizkuntza Eskola Ofizialek, Musikako Kontserbatorio Profesionalek eta Goi Mailakoek eta Arte Eskolek ematen dituzten araubide bereziko ikasketen titulazioak, baita berariazko lanbide heziketakoak ere, ondoren aipatzen denari jarraikiz baloratuko dira, betiere irakaskuntzako funtzio publikoan sartzeko baldintza gisa alegatu ez badira edo alegatutako titulua lortzeko ezinbestekoak izan ez badira:

a) Musika edo dantzako titulu profesional bakoitzeko: 0,500 puntu.

b) Hizkuntza Eskola Ofizialek emandako maila aurreratuko gaitasun agiri edo baliokide bakoitzeko: 0,500 puntu. EGA titulua edo haren baliokidea: 0,500 puntu.

c) Arte plastikoetako eta diseinuko goi mailako teknikarien titulua: 0,200 puntu.

d) Lanbide Heziketako goi mailako teknikarien titulua: 0,200 puntu.

e) Goi mailako kirol teknikarien titulua: 0,200 puntu.

Egiaztagiria: merezimendu gisa alegatutako tituluaren fotokopia konpultsatua edo titulua emateko eskubideak ordaindu izanaren ziurtagiria, bai eta kidegoan sartzeko alegatu duen titulua lortzeko beharrezkoak izan diren titulu guztien fotokopia konpultsatua ere.

Euskarazko lanpostuetarako lehiatzen bada, ez da euskarazko titulu bakar bat ere baloratuko. Gaztelaniazko lanpostuetarako lehiatzen bada eta euskarazko titulu baliokide bat baino gehiago aurkezten bada, titulu horietako bat bakarrik baloratuko da.

Baliokideak diren zenbait hizkuntza titulu aurkeztuz gero, horietako bat bakarrik baloratuko da.

2.1etik 2.4ra bitarteko ataletarako oharra:

1. Titulazioak atzerrian lortu badira, behar den homologazioa aurkeztu beharko da.

2.5. Etengabeko prestakuntza:

Gaunditutako etengabeko prestakuntzako eta hobekuntzako ikastaroak, aukeratu nahi den espezialitatearekin, eskolaren antolaketarekin, hezkuntzari aplikatutako teknologia berriei, didaktikarekin, psikopedagogiarekin edo hezkuntzako soziologiarekin loturik egonez gero, hezkuntza eskumen osoa duten administrazio publikoek edo unibertsitateek antolatutako badituzte, edo hezkuntza administrazioekin elkarlanean ari diren entitateek antolatutako etengabeko prestakuntzako planean sartutako jarduerak edo kasuan kasuko hezkuntza administrazioak onartutako jarduerak:

a) 3 kreditu gutxienez: 0,2000 puntu.

b) 10 kreditu gutxienez: 0,5000 puntu.

Musikako espezialitatean bakarrik, musikako kontserbatorioek antolatutako ikastaroak berdinduz baloratuko dira.

Azpiatal honi dagokionez, 2 kreditutik beherakoak ez diren ikastaroak metatzen ahalgo dira, azpiatal honetan zehazten diren betebeharrak betetzen badituzte. bi kreditutik beherakoak ez diren ikastaroak kreditu edo ordu guztiak batuz metatu eta guztirakoa ikastaro bat bailitzan baloratuko da, a) eta b) letretan xedatutakoarekin bat.

2.5 azpiatal honetan ez dira inolaz ere baloratuko titulu akademiko baten (doktooretza barne), "master" edo graduatuondoko beste titulazio baten curriculum osatzen duten ikastaro edo irakasgaiak. Ikastaro horiek amaitu eta dagozkien tituluak eskuratuta, titulu horiek, egoki bada, 2.5 azpiatalaren arabera baloratuko dira (778/1998 Errege Dekretuaren eta Unibertsitatei buruzko 6/2001 Lege Organikoa aldatu duen 4/2007 Lege Organikaren 34.1 artikularen arabera lortutako titulu ez-ofizialak) edo, hala denean, 2.2 azpiatalaren arabera (Urtarrilaren 21eko 56/2005 Errege Dekretuaren arabera titulu ofizial bat bada).

Egiaztagiria: kasuan kasuko erakunde edo zentroak luzatutako ziurtagiria, non ikastaroaren kreditu edo orduak espresuki adieraziko baitira. Etengabeko prestakuntzaren planean jardueretan edo hezkuntza administrazioak onartu dituen horietan espresuki adierazi beharko da jardura plan horretan sartuta dagoela edo hezkuntza administrazioak onartutakoa dela.

Ziurtagirietan kredituen ordez orduak adierazten direnean, ulertuko da 10 ordu kreditu bat egiten dutela.

Ez dira baloratuko ordu edo kredituen iraupena jasotzen ez duten ziurtagiriak.

2.5. atalerako oharra:

1. 2 kreditutik beherako ikastaroak ez dira metatuko eta ez dira baloratuko.

2. 2.5 azpiatalean ikastaro bakoitza a) eta b) letretan xedatutakoaren arabera baloratuko da.

3. Irakasgaitasun Ziurtagiria eta Espezializazio Didaktikoaren Titulua ez dira baloratuko.

III.-Beste merezimendu batzuk (2 puntu gehienez).

Argitalpenak eta hezkuntza proiektuetan parte hartzea:

Espezialitatearen alderdi zientifikoei buruz, curriculumaren alderdi orokorreari buruz edo eskolaren antolaketari buruz egindako argitalpen zientifiko edo didaktikoak.

Egiaztagiria: argitalpenen (I.S.B.N. edo I.S.S.N. direlakoak dituzten argitalpenak baizik ez dira baloratuko), programen eta abarren aleak, egindako kritikak eta, bidezkoa bada, sariak lortu izanaren frogagiria.

Merezimenduen baremo osorako oharra:

1. Deialdian parte hartzeko eskubideak aurkezteko epea bukatzen denerako burutu diren merezimenduak soilik baloratuko dira, baldin eta izangaiek epe horretan aurkezten badituzte.

2. Gaztelaniara itzuli beharko dira atzerriko hizkuntza batean idatzitako agiriak eta beste autonomia erkidego bateko hizkuntza ofizial propioan idatzitakoak, euskarazkoak izan ezik. Itzulpenek zinpeko itzulzaileek eginak izan beharko dute.

II. ERANSKINA

Bigarren Hezkuntzako Irakasleen Kidegora igotzeko merezimenduak baloratzeke baremoa

Baremo hau aplikatuta 10 puntu lor daitezke, gehienez ere.

I.-Egindako lana (gehienez 5,5 puntu).

1. Antzinatea (gehienez 4 puntu).

–Jatorrizko kidegoan karrerako funtzionario gisa emandako urte bakoitzeko, parte hartzeko baldintza gisa eskatutako sei urteetatik aparte: 0,5 puntu.

–Hilabete edo urteko zatiki bakoitzeko: 0,0416 puntu.

Egiaztagiria:

Zerbitzuen orria, dagokion hezkuntza administrazio eskudunak ziurtatua.

2. Berariazko eginkizunak eta hezkuntzako ikuskatzailatzak egindako borondatezko ebaluazioa (gehienez 2,5 puntu).

2.1. Zuzendaritza karguak ikastetxeetan:

2.1.1. Ikastetxe publikoetan zuzendari edo alboko zuzendari lanetan aritutako urte bakoitzeko: 0,25 puntu.

Hilabete edo urteko zatiki bakoitzeko: 0,0208 puntu.

Egiaztagiria:

Izendapenaren fotokopia konpultsatua, karguaz jabetzeko nahiz uzteko eginbidea agerian duena edo, bestela, karguan jarraitzen duela adierazten duen ziurtagiria.

2.1.2. Ikastetxe publikoetan zuzendariorde, idazkari edo ikasketaburu lanetan eta horiekin parekatutakoetan aritutako urte bakoitzeko: 0,20 puntu.

Hilabete edo urteko zatiki bakoitzeko: 0,0166 puntu.

Egiaztagiria:

Izendapenaren fotokopia konpultsatua, karguaz jabetzeko nahiz uzteko eginbidea agerian duena edo, bestela, karguan jarraitzen duela adierazten duen ziurtagiria.

2.1.3. Ikastetxe publikoetan beste zuzendaritza kargu batzuetan aritutako urte bakoitzeko: 0,15 puntu.

Hilabete edo urteko zatiki bakoitzeko: 0,0125 puntu.

Egiaztagiria:

Izendapenaren egiaztagiria fotokopia konpultsatua, karguan egiazki emandako denbora adierazten duena.

2.1.4. Ikuskapen lanetan aritutako urte bakoitzeko: 0,10 puntu.

Hilabete edo urteko zatiki bakoitzeko: 0,0083 puntu.

Egiaztagiria:

Izendapena eta jabetza hartzea eta uztea azaltzen duen egiaztagiria fotokopia konpultsatua, edo bestela, karguan jarraitzen duela adierazten duena.

2.2. Borondatezko ebaluazioa:

Irakasle lanaren balorazio positiboa: 0,25 puntu.

Egiaztagiria:

Balorazio positiboaren ziurtagiria, hezkuntza administrazio eskudunak emana.

I.-atalerako oharra:

Lehen.-1.1 atalean ondorioetarako, kontatu egingen dira zerbitzu berezien egoeran emandako zerbitzuak, halakotzat hartuak direnean abuztuaren 2ko 30/1984 Legearen 29.2 artikuluan, bai eta abuztuaren 2ko 30/1984 Legearen aurreko xedapenetan ezarritako halako egoerak ere. Era berean, ondorio horietarako baloratuko da eszendentzia berezian egindako denbora, abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuaren 27. artikularekin bat.

Bigarrena.-Zuzendaritza karguen balorazioa.

1. 2.1.1, 2.1.2, 2.1.3 eta 2.1.4 ataletan, Nafarroako Gobernuak karrerako funtzionario edo mugagabeko lan-kontratudun gisa izandako zuzendaritza karguak soilik baloratuko dira.

2. Merezimenduen baremoko 2.1.2 atalean ezarri diren ondorioetarako, zuzendaritza kargu parekatutzat honako hauek hartuko dira gutxienez:

–Atal honetan aipatutako karguak, Lanbide Heziketako Ataletan jardun denean.

–Idazkari albokoa.

–Ikasketaburu albokoa.

–Egoitzako burua.

–Batxilergoko Institutuko ikasketaburuaren delegatua edo autonomia erkidegoetan horren pareko direnak.

–Atal Delegatuko zuzendaria-ikasketaburua.

–Atal filialeko zuzendaria.

–Irakaskuntza Ertaineko Patronatuko zentro ofizialeko zuzendaria.

–Lanbide Heziketako ikastetxeen administratzailea.

–Irakasle delegatua, Lanbide Heziketako Atalaren kasuan.

3. Merezimenduen baremoko 2.1.3 atalean honako zuzendaritza kargu hauek puntuatuko dira gutxienez:

–Idazkariordea.

–Gaueko ikasketen delegatua-ikasketaburua Atal Delegatuan.

–Batxilergoko Institutuetako Hedapenetako idazkariaren delegatua edo autonomia erkidegoetan horien pareko direnak.

–Toki Korporazioekin egindako hitzarmeneko zentro homologatuetako zuzendari, ikasketaburu edo idazkaria.

–Ikastetxe libre adoptatuko zuzendaria, langilearen erregistro zenbakia duena.

–Irakaskuntza Ertainaren Patronatuko zentro ofizialeko idazkaria.

4. Kargu batean baino gehiagotan batera jardunez gero, ezin izanen da puntuazioa metatu.

5. Atal hau baloratzeko, Giza Baliabideen Zerbitzuak Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuaren mendeko funtzionarioen zerbitzu orria aurkeztuko du, parte-hartzaileen espediente pertsonalean dauden datuei jarraikiz.

II.–Gaiditutako prestakuntza eta hobekuntza ikastaroak (gehienez 3 puntu).

Gaiditutako etengabeko prestakuntzako eta hobekuntzako ikastaroak, aukeratu nahi den espezialitatearekin, eskolaren antolaketarekin, hezkuntzari aplikatutako teknologia berriekin, didaktikarekin, psikopedagogiarekin edo hezkuntzako soziologiarekin loturik egonez gero, hezkuntza eskumen osoa duten administrazio publikoek edo unibertsitateek antolatutako badituzte, edo hezkuntza administrazioekin elkarlanean ari diren entitateek antolatutako etengabeko prestakuntzako planean sartutako jarduerak edo kasuan kasuko hezkuntza administrazioak onartutako jarduerak:

a) 3 kreditu gutxienez: 0,2000 puntu.

b) 10 kreditu gutxienez: 0,5000 puntu.

Musikako espezialitatean bakarrik, musikako kontserbatorioek antolatutako ikastaroak berdin-berdin baloratuko dira.

Azpiatal honi dagokionez, 2 kreditutik beherakoak ez diren ikastaroak metatzen ahalko dira, azpiatal honetan zehazten diren betebeharrak betetzen badituzte. Bi kreditutik beherakoak ez diren ikastaroak kreditu edo ordu guztiak batuz metatu eta guztirakoa ikastaro bat bailitza baloratuko da, a) eta b) letretan xedatutakoarekin bat.

Atal honetan ez dira inolaz ere baloratuko titulu akademiko baten (doktoretza barne), "master" edo graduondoko beste titulazio baten curriculum osatzen duten ikastaro edo irakasgaiak. Ikastaro horiek amaitu eta dagozkien tituluak eskuratuta, titulu horiek, egoki bada, 2,5 azpiatalaren arabera baloratuko dira (778/1998 Errege Dekretuaren eta Unibertsitatei buruzko 6/2001 Lege Organikoa aldatu duen 4/2007 Lege Organikoaren 34.1 artikulua arabera lortutako titulu ez-ofizialak) edo, hala denean, 2,2 azpiatalaren arabera (Urtarrilaren 21eko 56/2005 Errege Dekretuaren arabera titulu ofizial bat bada).

Egiatagiriak: ikastaroen ziurtagiria, kasuan kasuko erakunde edo zentroak luzatua, non ikastaroaren kreditu edo orduak espresuki adieraziko baitira. Etengabeko prestakuntzaren planeko jardueretan edo hezkuntza administrazioak onartu dituen horietan espresuki adierazi beharko da jarduera plan horretan sartuta dagoela edo hezkuntza administrazioak onartutakoa dela.

Ziurtagirietan kredituen ordez orduak adierazten direnean, ulertuko da 10 ordu kreditu bat egiten dutela.

Ez dira baloratuko ordu edo kredituen iraupena jasotzen ez duten ziurtagiriak.

II.–atalerako oharra:

1. 2 kreditutik beherako ikastaroak ez dira metatuko eta ez dira baloratuko.

2. Atal honetan ikastaro bakoitza a) eta b) letretan xedatutakoaren arabera baloratuko da.

3. Irakasgaitasun Ziurtagiria eta Espezializazio Didaktikoaren Titulua ez dira baloratuko.

III.–Merezimendu akademikoak eta beste merezimendu batzuk (gehienez 3 puntu).

3.1. Merezimendu akademikoak (gehienez 1,5 puntu).

Baloratzerakoan, Espainiar Estatuan balio ofiziala duten tituluak bakarrik izanen dira kontuan.

3.1.1. Graduondoa, doktoretza eta aparteko sariak:

3.1.1.1. Ikasketa aurreratuen ziurtagiri-diplomagatik (apirilaren 30eko 778/1998 Errege Dekretua), master titulu ofizialagatik (urtarrilaren 21eko 56/2005 Errege Dekretua), ikertzeko nahikotasunagatik edo beste edozein titulu baliokiderengatik, irakaskuntzarako funtzio publikoan sartzeko betebeharrak ez badira: puntu 1,000.

3.1.1.2. Doktore titulua izateagatik: puntu 1,000.

3.1.1.3. Doktoretzan aparteko saria lortzeagatik: 0,500 puntu.

Egiatagiriak: tituluaren fotokopia konpultsatua edo, hala badagokio, ziurtagiri-diploma edo titulua emateko eskubideak ordaindu izanaren egiatagiria.

3.1.2. Unibertsitateko beste titulazio batzuk:

Unibertsitateko titulazio ofizialak, irakaskuntzako funtzio publikoan sartzeko baldintzak direla-eta alegatutakoak ez badira, honela baloratuko dira:

3.1.2.1. Lehen zikloko titulazioak:

Diplomatura, Ingeniaritza Tekniko edo Arkitektura Teknikoko titulu bakoitzeko edo legez baliokide diren tituluak eta Lizentziatura, Arkitektura edo Ingeniaritza bateko lehen zikloari dagozkion ikasketak: puntu 1,000.

Atal honetan ez dira inolaz ere baloratuko izangaiak aurkeztu duen lehen lizentziadun, ingeniari edo arkitekto titulua lortzeko gauditu behar izan dituen ikasketen titulua edo era horretako ikasketak.

3.1.2.2. Bigarren zikloko titulazioak:

Lizentziatura, Ingeniaritza edo Arkitekturako bigarren zikloko ikasketak edo legez baliokide diren tituluak dagozkienak: puntu 1,000.

Atal honetan ez dira inolaz ere baloratuko izangaiak aurkezten duen lizentziadunaren, arkitektoaren edo ingeniariaren lehenbiziko titulua lortzeko gauditu behar diren ikasketak (lehen zikloa, bigarren zikloa edo, hala badagokio, irakaskuntza osagariak).

Egiatagiriak: kidegoan sartzeko alegatutako tituluaren fotokopia konpultsatua, bai eta merezimendu gisa alegatzen diren guztiena ere edo, hala denean, titulua eskuratzeko eskubideak ordaindu izanaren ziurtagiria.

Lehen zikloko titulazioak puntuatuko badira, ezinbestekoa izanen da diplomatura tituluaren fotokopia aurkeztea edo, bestela, lizentziatura, ingeniari edo arkitektura bateko lehenbiziko hiru kursoetako irakasgaiak egin eta gauditu direla azalduko duen ziurtagiri akademiko pertsonala. Egokitapen kurtsua gauditzea ez da hartuko lehen zikloko titulaziotzat.

Lizentziadun, ingeniari edo arkitekto tituluaren fotokopia aurkezten bada, aintzat hartuko dena bigarren zikloko titulazioari dagokion puntuazioa izanen da soilik, salbu eta aurreko atalean aipatzen den ziurtagiri akademikoa aurkezten bada 2.3.1. atalaren arabera baloratzeko.

3.1.2.3. Araubide bereziko irakaskuntzako eta berariazko lanbide heziketako titulazioak:

Hizkuntza Eskola Ofizialek, Musikako Kontserbatorio Profesionalek eta Goi Mailako Arte Eskolek ematen dituzten araubide bereziko ikasketen titulazioak, baita berariazko lanbide heziketakoak ere, ondoren aipatzen denari jarraikiz baloratuko dira, betiere irakaskuntzako funtzio publikoan sartzeko baldintza gisa alegatu ez badira edo alegatutako titulua lortzeko ezinbestekoak izan ez badira:

a) Musika edo dantzako titulu profesional bakoitzeko: 0,500 puntu.

b) Hizkuntza Eskola Ofizialek emandako maila aurreratuko gaitasun agiri edo baliokide bakoitzeko: 0,500 puntu. EGA titulua edo haren baliokidea: 0,500 puntu.

c) Arte plastikoetako eta diseinuko goi mailako teknikarien titulua: 0,200 puntu.

d) Lanbide Heziketako goi mailako teknikarien titulua: 0,200 puntu.

e) Goi mailako kirol teknikarien titulua: 0,200 puntu.

Egiatagiriak: merezimendu gisa alegatutako tituluaren fotokopia konpultsatua edo titulua emateko eskubideak ordaindu izanaren ziurtagiria, bai eta kidegoan sartzeko alegatu duen titulua lortzeko beharrezkoak izan diren titulu guztien fotokopia konpultsatua ere.

Euskarazko lanpostuetarako lehiatzen bada, ez da euskarazko titulu bakar bat ere baloratuko. Gaztelaniazko lanpostuetarako lehiatzen bada eta euskarazko titulu baliokide bat baino gehiago aurkezten bada, titulu horietako bat bakarrik baloratuko da.

Baliokideak diren zenbait hizkuntza titulu aurkeztuz gero, horietako bat bakarrik baloratuko da.

3.1. atalerako oharra:

1. Titulazioak atzerrian lortu badira, behar den homologazioa aurkeztu beharko da.

3.2. Argitalpenak, hezkuntza proiektuetan parte hartzea eta merezimendu artistikoak.

Espezialitatearen berariazko alderdiei buruz, curriculumaren alderdi orokorreki buruz edo eskolaren antolaketari buruz egindako argitalpen zientifiko edo didaktikoak: gehienez ere 1,5 puntu.

Egiaztagiria:

Argitalpenen (I.S.B.N. edo I.S.S.N. direlakoak dituzten argitalpenak baizik ez dira baloratuko), programen eta abarren aleak, egindako kritikak eta, bidezkoa bada, sariak lortu izanaren frogagiria.

Merezimenduen baremo osorako oharra

Lehen. -Deialdian parte hartzeko eskabideak aurkezteko epea bukatzen denerako burutu diren merezimenduak soilik baloratuko dira, baldin eta izangaiek epe horretan aurkeztean badituzte.

Bigarrena. -Gaztelaniara itzuli beharko dira atzerriko hizkuntza batean idatzitako agiriak eta beste autonomia erkidego bateko hizkuntza ofizial propioan idatzitakoak, euskarazkoak izan ezik. Itzulpenek zinpeko itultzaileek eginak izan beharko dute.

III. ERANSKINA

Irakaskuntzarako baliokidetzat hartutako titulazioak, Bigarren Hezkuntzako Irakasleen Kidegoan sartzeko

Enpresen Administrazioa:

- Enpresa Zientzietan diplomaduna.
- Kudeaketa eta Administrazio Publikoan diplomaduna.

Lanerako Prestakuntza eta Orientazioa:

- Enpresa Zientzietan diplomaduna.
- Lan Harremanetan diplomaduna.
- Gizarte Lanetan diplomaduna.
- Gizarte Hezkuntzan diplomaduna.
- Kudeaketa eta Administrazio Publikoan diplomaduna.

Gizartean eta komunitatean esku hartzea:

- Maisu-maistrak, espezialitate guztiak.
- Gizarte Hezkuntzan diplomaduna.
- Gizarte Lanetan diplomaduna.

Ibilgailuen mantentze-lanen antolaketa eta prozesuak:

- Itsas nabigazioan diplomaduna.
- Ontzietako irratielektronikan diplomaduna.
- Ontzi-makinetan diplomaduna.
- Aeronautikako ingeniari teknikoa, espezialitate guztiak.
- Nekazaritzako ingeniari teknikoa, espezialitate guztiak.
- Oihan ingeniari teknikoa, espezialitate guztiak.
- Meatzeetako ingeniari teknikoa, espezialitate guztiak.
- Ontzietako ingeniari teknikoa, espezialitate guztiak.
- Herri lanetako ingeniari teknikoa, espezialitate guztiak.
- Industria ingeniari teknikoa, espezialitate guztiak.

Fabrikazio mekanikoaren antolaketa eta proiektuak:

- Industria ingeniari teknikoa, espezialitate guztiak.
- Meatzeetako ingeniari teknikoa, espezialitate guztiak.
- Diseinu Industrialeko ingeniari teknikoa.
- Aeronautikako ingeniari teknikoa, Aireontzien espezialitatea, Aire espazioeko Ekipo eta Materialen espezialitatea.
- Ontzietako ingeniari teknikoa, espezialitate guztiak.
- Nekazaritzako ingeniari teknikoa:
 - Nekazaritza eta abeltzaintzako ustategien espezialitatea.
 - Nekazaritzako eta elikadurako industriaren espezialitatea.
 - Landa eraikuntzen eta mekanizazioaren espezialitatea.
- Herri lanetako ingeniari teknikoa, eraikuntza zibilen espezialitatea.
- Ontzi-makinetan diplomaduna.

Energia sistemen antolaketa eta proiektuak:

- Industria ingeniari teknikoa, espezialitate guztiak.
- Aeronautikako ingeniari teknikoa, espezialitate guztiak.
- Herri lanetako ingeniari teknikoa, espezialitate guztiak.
- Telekomunikazio ingeniari teknikoa, espezialitate guztiak.
- Ontzietako ingeniari teknikoa, espezialitate guztiak.
- Nekazaritzako ingeniari teknikoa, espezialitate guztiak.
- Meatzeetako ingeniari teknikoa, espezialitate guztiak.
- Ontzi-makinetan diplomaduna.

Nekazaritzako ekoizpeneko prozesuak:

- Nekazaritzako ingeniari teknikoa, espezialitate guztiak.
- Oihan ingeniari teknikoa, espezialitate guztiak.

Osasun Prozesuak:

- Erizaintzako diplomaduna.

Sistema elektronikoak:

- Ontzietako irratielektronikan diplomaduna.
- Aeronautikako ingeniari teknikoa, Airenabigazioko espezialitatea.
- Sistemen Informatikako ingeniari teknikoa.
- Industria ingeniari teknikoa, Elektrizitatearen espezialitatea, Industria Elektronikaren espezialitatea.
- Telekomunikazio ingeniari teknikoa, espezialitate guztiak.

Sistema elektroteknikoak eta automatikoak:

- Ontzietako irratielektronikan diplomaduna.
- Aeronautikako ingeniari teknikoa, Airenabigazioko espezialitatea.
- Sistemen Informatikako ingeniari teknikoa.
- Industria ingeniari teknikoa, Elektrizitatearen espezialitatea, Industria Elektronikaren espezialitatea.
- Telekomunikazio ingeniari teknikoa, espezialitate guztiak.

Teknologia:

- Ingeniari teknikoa.
- Arkitekto teknikoa.
- Ontzi-makinetan diplomaduna.
- Itsas nabigazioan diplomaduna.
- Ontzietako irratielektronikan diplomaduna.

Oharra: titulazio horiek Unibertsitateko Titulu Ofizialen Katalogoak eta horretan gerora sartutako multzokoak dira. Irakaskuntzarako baliokidetzat hartzen dira, halaber, zehaztutako horien homologoak diren titulazioak, irailaren 30eko 1954/1994 Errege Dekretuaren arabera (azaroaren 17ko "Estatuko Aldizkari Ofiziala").

IV. ERANSKINA

Irakaskuntzarako baliokidetzat hartutako titulazioak, Lanbide Heziketako Irakasle Teknikoen Kidegoan sartzeko

Arotz-lanak eta altzariak egin eta instalatzea:

- Zurgintza eta altzarigintzako goi mailako teknikaria.
- Zurgintza eta altzarigintzako produktuen garapeneko goi mailako teknikaria.
- Egurrezko Industria Eraikuntzako teknikari espezialista.
- Ebanisteriako teknikari espezialista.
- Zurgintzako teknikari espezialista.
- Galdaketako Modelogile teknikari espezialista.
- Altzarien diseinu eta fabrikazioko teknikari espezialista.

Makinen mekanizazioa eta mantentze-lanak:

- Mekanizazioaren bidezko produkzioko goi mailako teknikaria.
- Makineriaren muntaia eta eraikuntzako teknikari espezialista.
- Makina-erreminten mikromekanikako teknikari espezialista.
- Tresnen mikromekanikako teknikari espezialista.
- Neurketa sistemetako teknikari espezialista instrumentista.
- Tresneria eta muntaia mekanikoen teknikari espezialista.
- Armen mekanikako teknikari espezialista.
- Fabrikazio mekanikoko teknikari espezialista.
- Makina-erremintetako teknikari espezialista.
- Matrizeriako eta moldeetako teknikari espezialista.
- Kalitatearen kontrolerako teknikari espezialista.
- Mikromekanikako eta Erlojugintzako teknikari espezialista.

Elikagaien elaborazioko lanak eta ekipoak:

- Elikagaien industriako goi mailako teknikaria.

Soldadura:

- Metalezko eraikuntzetako goi mailako teknikaria.
- Metalezko eraikuntzetako eta soldadurako teknikari espezialista.
- Soldadurako teknikari espezialista.
- Soldadura-fabrikazioko teknikari espezialista.
- Egitura-txapako galdaragintzako teknikari espezialista.
- Ontzigitzako teknikari espezialista.
- Itsasontzi-marratzaileko teknikari espezialista.

Lanbide Heziketako Irakasle Teknikoen Kidegoan sartzeko, eta soil-soilik hezkuntza administrazioek espezialitate bakoitzeko lehenbiziko lau deialdiak burutu ez dituztenean (apirilaren 30eko 777/1998 Errege Dekretuko bigarren xedapen iragankorrean aipatzen zen, otsailaren 27ko 334/2004 Errege Dekretuak ezarritako testu berriaren ara-

bera), ondoko izangaiak onartzen ahalko dira, orokorrean eskatutako titulazioa ez izan arren: deialdia egiten duen hezkuntza administrazioaren mendeko ikastetxe publikoetan gutxienez ere bi urtez irakasle lana egin dutela frogatu eta kasuan kasuko lanbide arlokoa den lanbide heziketako espezialitate batean teknikari espezialista edo goi mailako teknikari titulua duten izangaiak. Lau deialdien eraginkortasun epea aipatu den apirilaren 30eko 777/1998 Errege Dekretuak indarra hartu zuen egunari lotuta dago.

Oharra: horri dagokionez adierazi behar da deialdi hau espezialitate hauen laugarrena izan dena: Instalazio elektroteknikoak, Makinen mekanizazioa eta mantentze-lanak, Diagnostiko kliniko eta ortoprotesikoen prozedurak, Osasun eta laguntza prozedurak eta Soldadura.

V. ERANSKINA

Gai zerrendak

Kidego eta espezialitate bakoitzari dagozkion gai zerrendak ondoren aipatzen diren aginduetan agertzen dira, bakoitzaren B zatian, hala de-nean, azaltzen diren gaiak izan ezik, indarrrik gabe gelditu baita.

Bigarren Hezkuntzako Irakasleen Kidegoa:

–1993ko irailaren 9ko Agindua (irailaren 21eko "Estatuko Aldizkari Ofiziala"), zeinak onetsi baititu Maisu-maistren, Bigarren Hezkuntzako Irakasleen eta Hizkuntza Eskola Ofizialetako Irakasleen Kidegoetan sartzeko, espezialitate berriak lortzeko eta espezialitate batzuetarako mugikortasuna izateko prozeduretan erabiliko diren gai zerrendak, ekainaren 4ko 850/1993 Errege Dekretuak arautuak, espezialitate hauetarako:

- Biologia eta Geologia
- Marrazketa
- Gorputz Hezkuntza
- Filosofia
- Fisika eta Kimika
- Frantsesa
- Geografia eta Historia
- Ingelesa
- Latina
- Gaztelania eta Literatura
- Matematika
- Musika
- Psikologia eta Pedagogia
- Teknologia

–1996ko otsailaren 1eko Agindua (otsailaren 13ko "Estatuko Aldizkari Ofiziala"), zeinak onetsi baititu Bigarren Hezkuntzako Irakasleen eta Lanbide Heziketako Irakasle Teknikoen Kidegoetan sartzeko, espezialitate berriak lortzeko eta espezialitate batzuetarako mugikortasuna izateko prozeduretan erabiliko diren gai zerrendak, espezialitate hauetarako:

- Enpresen administrazioa
- Ekonomia
- Lanerako Prestakuntza eta Orientazioa
- Gizartean eta komunitatean esku hartzea
- Ibilgailuen mantentze-lanen antolaketa eta prozesuak
- Fabrikazio mekanikoaren antolaketa eta proiektuak
- Energia sistemen antolaketa eta proiektuak
- Diagnostiko klinikoaren prozesuak eta produktu ortoprotesikoak
- Nekazaritzako ekoizpeneko prozesuak
- Osasun prozesuak
- Sistema elektronikoak
- Sistema elektroteknikoak eta automatikoak

–Azaroaren 3ko 374/1999 Foru Aginduaren II. eranskina (abenduaren 20ko Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALA), martxoaren 9ko 86/2000 Foru Aginduak aldatua (martxoaren 20ko Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALA), Euskal Hizkuntza eta Literaturaren espezialiterako.

Lanbide Heziketako Irakasle Teknikoen Kidegoa:

1996ko otsailaren 1eko Agindua (otsailaren 13ko "Estatuko Aldizkari Ofiziala"), zeinak onetsi baititu Bigarren Hezkuntzako Irakasleen eta Lanbide Heziketako Irakasle Teknikoen Kidegoetan sartzeko, espezialitate berriak lortzeko eta espezialitate batzuetarako mugikortasuna izateko prozeduretan erabiliko diren gai zerrendak.

Hizkuntza Eskola Ofizialetako Irakasleen Kidegoa:

1993ko irailaren 9ko Agindua (irailaren 21eko "Estatuko Aldizkari Ofiziala"), zeinak onetsi baititu Maisu-maistren, Bigarren Hezkuntzako Irakasleen eta Hizkuntza Eskola Ofizialetako Irakasleen Kidegoetan

sartzeko, espezialitate berriak lortzeko eta espezialitate batzuetarako mugikortasuna izateko prozeduretan erabiliko diren gai zerrendak, ekainaren 4ko 850/1993 Errege Dekretuak arautuak.

VI. ERANSKINA

Ariketa praktikoaren ezaugarriak

Ariketa praktikoa.

Ondoren aipatzen diren espezialitateetan probako B zatian ariketa praktiko bat izan dena, lortu nahi duten espezialitateko arlo, irakasgai edo moduluak emateko behar diren lan teknikak eta prestakuntza zientifikoa badituztela egiaztatu ahal izateko.

Espezialitate hauek:

–Bigarren Hezkuntzako Irakasleen Kidegoan: Gorputz Hezkuntza, Musika, Teknologia eta Berariazko Lanbide Heziketako espezialitate guztiak (Lanerako Prestakuntza eta Orientazioaren espezialitatea barne).

–Lanbide Heziketako Irakasle Teknikoen Kidegoan: espezialitate guztiak.

–Hizkuntza Eskola Ofizialetako Irakasleen Kidegoan: espezialitate guztiak.

Epaimahai bakoitzak ezarriko du ariketaren eduki praktikoa zehazteko modua, hurrengo lerroaldeetan espezialitate bakoitzerako ematen diren irizpideei jarraikiz.

Epaimahaiak ekitaldi kolektiboan egingen diete dei izangaiei, bana-kako probak egin baino lehen, ariketa hau egin dezaten.

B.1) eta B.2) ariketetan izangai bakoitzaren azalpenaren ondoren egingen den eztabaidan, epaimahaiaren galderak ariketa praktikoari buruzkoak ere izaten ahalko dira.

Bigarren Hezkuntzako Irakasleen Kidegoa.

–Gorputz Hezkuntza: ariketa praktikoaren bidez egiaztatzen ahalko da izangai bakoitzak zer gaitasun duen ariketak diseinatzeko honako alderdi guztiekin eta batzuekin lotuta: erresistentzia, malgutasuna, abiadura, indarra eta erlaxazioa, bai eta ariketa horiek egiteko zer gaitasun duen ere.

–Musika:

1. Partitura eta/edo entzunaldi moduan aurkeztutako zati baten analisi musikal eta didaktikoa. Epaimahaiak musika zati labur bat aurkeztuko du, aipatu diren bi moduetako batean. Izangaiak bi ordu izanzen dituzte ariketa idatzi hau egiteko.

2. Pieza labur edo zati bat (erritmiko-melodikoa) begiratzeaz batera irakurtzea, epaimahaiak emanen duen partituratik abiatuta. Proba honek 10 minutu inguru iraunen du, izangai bakoitzeko.

3. Oposizioegileak aukeratutako pieza edo zati bat, bost minutuz gehienez, interpretatzea, ahotsarekin edo musika-tresna batekin. Izangaiak, nahi izanez gero, lagunduta ere egin dezake, baita elektroakustika baliabidez lagunduta ere. Aretoan piano bat izan dena oposizioegileen eskura. Izangaiak, nahi izanez gero, beste baliabide edo tresna batzuk eramaten ahalko ditu. Aldez aurretik, zehazten den epean, atal honi dagozkion partituren kopia bat eman beharko zaio epamahiari.

Zati honen puntuazioa kalkulatzeko ondoko ponderazioa erabiliko da: lehen ariketa: %40, bigarren ariketa: %30 eta hirugarren ariketa: %30

–Teknologia eta berariazko lanbide heziketako espezialitateak: epaimahaiak proposatutako kasu praktiko bat ebatzi beharko dute izangaiak, eta kasu hori espezialitateko gai zerrendari buruzkoa izan dena.

Lanbide Heziketako Irakasle Teknikoen Kidegoa.

Espezialitate guztietan ariketa praktikoak egingen dira, izangaiak hautatu duen espezialitateko ezagutza praktikoetan zer gaitasun duen egiaztatu ahal izateko. Espezialitateko gai zerrendari buruzkoak izanzen dira.

Hizkuntza Eskola Ofizialetako Irakasleen Kidegoa.

Ariketa praktikoak hiru zati izanzen ditu:

1.–Alderantzizko itzulpena.

2.–Itzulpen zuzena.

3.–225-250 hitz izanzen dituen testu garaikide baten azterketa zenbait mailatan (pragmatikoa, semantikoa, morfosintaktikoa eta fonologikoa), horiek testuaren esanahi orokorrerako duten garrantziaren arabera.

Alderantzizko itzulpenak %40eko balorazioa izanzen du, itzulpen zuzenak %10ekoa eta testu garaikidearen azterketak %50ekoa. Gehienez ere lau ordu izanzen dira.

VII. ERANSKINA

Foru dekretuak, Nafarroako Foru Komunitatean teknikari eta goi mailako teknikari tituluei dagozkien erdi eta goi mailako heziketa zikloen curriculumak ezartzen dituztenak

Nekazaritza jarduerak

Nekazaritzako ustategi estentsiboak. 194/1997 FD, 97/12/22ko Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALA.

Nekazaritzako ustategi intentsiboak. 271/2004 FD, 04/09/22ko Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALA.

Abeltzaintzako ustategiak. 360/1997 FD, 98/2/25eko Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALA.

Lorezaintza. 57/1997 FD, 97/4/23ko Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALA.

Oihan-lanak eta natur ingurunea zaintzeko lanak. 154/1997 FD, 97/7/25eko Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALA.

Nekazaritzako eta abeltzaintzako enpresen kudeaketa eta antolaketa. 360/1998 FD, 99/8/4ko Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALA.

Natur eta paisaia baliabideen kudeaketa eta antolaketa. 218/1999 FD, 99/9/8ko Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALA.

Gorputz eta kirol jarduerak

Gorputz eta kirol jarduerak gidatzea. 273/2004 FD, 04/10/13ko Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALA.

Natur ingurunean gorputz eta kirol jarduerak gidatzea. 111/1998 FD, 98/8/14ko Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALA.

Administrazioa

Administrazio kudeaketa. 226/1996 FD, 96/10/2ko Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALA.

Administrazioa eta finantzak. 272/2004 FD, 04/09/03ko Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALA.

Idazkaritza. 275/1996 FD, 96/12/11ko Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALA.

Merkataritza eta marketina

Merkataritza. 151/1996 FD, 96/5/31ko Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALA.

Nazioarteko merkataritza. 152/1996 FD, 96/5/31ko Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALA.

Merkataritzako kudeaketa eta marketina. 181/1997 FD, 97/11/5eko Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALA.

Garraioaren kudeaketa. 214/1998 FD, 98/11/13ko Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALA. 190/2002 FD, 02/10/02eko Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALA.

Kontsumitzailearentzako zerbitzuak. 220/1999 FD, 99/9/8ko Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALA.

Eraikuntza eta obra zibila

Eraikuntzako akaberak. 229/1996 FD, 96/12/2ko Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALA.

Igeltserotza lanak. 150/1997 FD, 97/7/21eko Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALA.

Hormigoi lanak. 356/1997 FD, 98/2/25eko Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALA.

Eraikuntza proiektuen garapena eta aplikazioa. 221/1999 FD, 99/9/8ko Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALA.

Elektrizitatea-elektronika

Ekipo eta instalazio elektroteknikoak. 228/1996 FD, 96/12/2ko Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALA.

Kontsumorako ekipo elektronikoak. 274/1996 FD, 96/12/11ko Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALA.

Produktu elektronikoaren garapena. 179/1997 FD, 97/12/22ko Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALA.

Instalazio elektroteknikoak. 151/1997 FD, 97/7/21eko Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALA.

Erregulazio eta kontrol sistema automatikoak. 260/1996 FD, 96/12/23ko Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALA.

Telekomunikazio eta informatika sistemak. 357/1997 FD, 98/8/14ko Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALA.

Fabrikazio mekanikoa

Mekanizazioa. 224/1996 FD, 96/10/2ko Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALA.

Soldadura eta galdaragintza. 261/1996 FD, 96/12/4ko Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALA.

Metalezko eraikuntzak. 114/1998 FD, 98/8/24ko Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALA.

Proiektu mekanikoen garapena. 346/1998 FD, 99/3/5eko Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALA.

Mekanizazio bidezko produkzioa. 276/1996 FD, 96/12/11ko Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALA.

Ostalaritza eta turismoa

Sukaldaritza. 227/1996 FD, 96/12/27ko Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALA.

Pastelgintza eta okintza. 155/1997 FD, 97/7/25eko Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALA.

Jatetxe eta tabernako zerbitzuak. 273/1996 FD, 97/6/13ko Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALA.

Ostatu arloa. 113/1998 FD, 98/8/24ko Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALA.

Turismoaren informazioa eta merkaturatzea. 358/1997 FD, 98/2/25eko Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALA.

Jatetxeen arloa. 359/1997 FD, 98/2/25eko Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALA.

Irudi pertsonala

Dekorazio estetika pertsonala. 277/1996 FD, 97/6/13ko Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALA.

Ile-apainketa. 259/1996 FD, 96/12/4ko Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALA.

Estetika. 180/1997 FD, 97/11/5eko Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALA.

Elikagaien industriak

Barazki, haragi eta arrain kontserbagintza. 116/1998 FD, 98/8/24ko Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALA.

Elikagaien industria. 359/1998 FD, 99/8/4ko Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALA.

Informatika

Informatika sistemen administrazioa. 225/1996 FD, 96/12/23ko Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALA.

Informatika aplikazioen garapena. 110/1998 FD, 98/8/14ko Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALA.

Zurgintza eta altzarigintza

Arotz-lanak eta altzariak neurrira egin eta instalatzea. 262/1996 FD, 97/6/13ko Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALA.

Zurgintza eta altzarigintza. 197/1997 FD, 97/12/24ko Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALA.

Ibilgailu autopropulsatuen mantentze-lanak.

Karrozeria. 52/1997 FD, 97/6/13ko Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALA.

Ibilgailuen elektromekanika. 257/1996 FD, 96/12/4ko Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALA.

Automozioa. 178/1997 FD, 97/11/5eko Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALA.

Produktzioaren zerbitzuak eta mantentze-lanak

Makinariaren eta linea-eroanbideen instalazio eta mantentze-lan elektromekanikoa. 54/1997 FD, 97/4/18ko Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALA.

Hotz, girote eta bero instalazioak jarri eta mantentzea. 53/1997 FD, 97/4/18ko Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALA.

Industria ekipoen mantentze-lanak. 270/2004 FD, 04/10/06ko Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALA.

Eraikineko eta prozesuko instalazioak mantendu eta muntatzea. 30/2003 FD, 03/5/9ko Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALA.

Lanbide arriskuen prebentzioa. 203/2002 FD, 02/12/13ko Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALA.

Kimika

Laborategia. 56/1997 FD, 97/6/13ko Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALA.

Kimika lantegiko prozesu lanak. 222/1999 FD, 99/9/10eko Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALA.

Analisia eta kontrola. 198/1997 FD, 97/12/24ko Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALA.

Osasuna

Erizaintzako zainketa lagungarriak. 153/1996 FD, 96/5/31ko Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALA.

Farmazia. 212/1998 FD, 98/11/13ko Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALA.

Anatomia patologikoa eta zitologia. 347/1998 FD, 99/3/5eko Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALA.

Osasun dokumentazioa. 152/1997 FD, 97/7/25eko Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALA.

Aho-hortzetako higieena. 278/2001 FD, 02/2/18ko Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALA.

Diagnostikorako irudia. 344/1998 FD, 99/3/5eko Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALA.

Diagnosi klinikoen laborategia. 358/1998 FD, 99/8/4ko Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALA.

Hortz protesiak. 357/1998 FD, 99/8/4ko Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALA.

Ingurumen osasuna. 154/1996 FD, 96/5/31ko Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALA.

Gizarte eta kultur zerbitzuak

Laguntza soziosanitarioa. 269/2004 FD, 04/09/22ko Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALA.

Gizarte eta kultur sustapena. 223/1999 FD, 99/9/10eko Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALA.

Haur Hezkuntza. 213/1998 FD, 98/11/13ko Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALA.

Gizarte integrazioa. 115/1998 FD, 98/8/24ko Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALA.

Ehungintza, jantzigintza eta larrugintza

Jantzigintza. 345/1998 FD, 99/3/5eko Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALA.

Foru dekretuak, Nafarroako Foru Komunitatean Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko curriculumak ezartzen dituztenak

62/2002 Foru Dekretua, martxoaren 25ekoa, Nafarroako Foru Komunitatean Batxilergoaren egitura eta curriculumak ezartzen dituenak (2002ko apirilaren 22ko Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALA).

151/2004 Foru Agindua, ekainaren 15ekoa, Hezkuntza kontseilariak emana, Nafarroako Foru Komunitatean Batxilergoaren egitura garatu, haren antolaketara arautu, ordutegia finkatu eta aukerako irakasgaien curriculumak onesten duena (2004ko ekainaren 30eko Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALA). Hezkuntza kontseilariak emandako ekainaren 15eko 151/2004 Foru Aginduaren akats zuzenketa (2004ko abuztuaren 4ko Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALA).

25/2007 Foru Dekretua, martxoaren 19koa, Nafarroako Foru Komunitatean Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako irakaskuntzarako curriculumak ezartzen duena. (2007ko maiatzaren 25eko Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALA).

Hezkuntza Eskola Ofizialetako curriculumak ezartzen dituzten foru dekretuak

272/2003 Foru Dekretua, uztailaren 28koa, hizkuntzen irakaskuntza espezializatueta lehen mailako Goi Zikloa antolatu eta haren curriculumak ezartzen duena (2003ko abuztuaren 25eko Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALA).

22/2007 Foru Dekretua, martxoaren 19koa, Hezkuntzari buruzko 2/2006 Lege Organikoaren araubide bereziko hizkuntza irakaskuntzen oinarriko eta erdiko mailako curriculumak ezartzen duena Nafarroako Foru Komunitatean (2007ko maiatzaren 4ko Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALA).

VIII. ERANSKINA

A) Espezialitate guztietarako txostena (Psikologia eta Pedagogiakoa izan ezik)

IFZ:
DEITURAK ETA IZENA:
KIDEGOA ESPEZIALITATEA
ARI DENEKO IKASTETXEA KODEA
HERRIA BESTE EGOERA BATZUK

TXOSTENAREN ESPARRUAK

EZAGUTZEN EGIAZTAPENA

1.–Ikaskuntzaren helburuen zehaztasuna.

–Helburuak teknikoki ongi azalduak daude, kohorenteak dira eta curriculum ofizialaren helburu orokorrak zehazten dituzte.

BAI ☐ EZ ☐

–Kasuan kasuko ikasmailara eta ikaslearen ezaugarrietara egokituta daude.

BAI ☐ EZ ☐

2.–Edukiak.

–Edukiak helburuen proposamenarekin bat hautatu dira.

BAI ☐ EZ ☐

–Curriculum ofizialaren esparruan daude eta proposatutako kurtsorako egokiak dira.

BAI ☐ EZ ☐

–Askotariko azalpena dute eta irizpide epistemologiko, kontestualizatu eta funtzionalekin bat datoz.

BAI ☐ EZ ☐

3.–Irakaskuntzako eta ikaskuntzako jarduerak.

–Jardueren programazioak proposatutako helburuak lortzen eta edukiak garatzen laguntzen du.

BAI ☐ EZ ☐

–Motibatzaileak dira, askotarikoak, zailtasunen arabera sailkatuak eta ikasle gehienek egiten ahal dituzte.

BAI ☐ EZ ☐

–Denetarikoa baliabide didaktikoak erabili asmo dira.

BAI ☐ EZ ☐

4.–Ebaluazio prozedurak.

–Proposatutako helburu, eduki eta jarduerekin bat datoz.

BAI ☐ EZ ☐

–Askotarikoak dira, malguak, ikasleen aniztasunera egokituak, eta errekupezioko tresnak aurreikusten dituzte. ...

BAI ☐ EZ ☐

.....(e)n, 2008koaren(e)an.

(Batzordeko kideen sinadura)

B) Psikologia eta Pedagogiako espezialiterako txostena

IFZ:
DEITURAK ETA IZENA:
KIDEGOA
ESPEZIALITATEA

ARI DENEKO IKASTETXEA
KODEA
HERRIA
BESTE EGOERA BATZUK

TXOSTENAREN ESPARRUAK

EZAGUTZEN EGIAZTAPENA

1.–Programaren helburuen zehaztasuna.

–Helburuak teknikoki ongi azalduta daude, kohorenteak dira.

BAI ☐ EZ ☐

–Kasuan kasuko ikasmaila, etapa, ziklo edo modulura eta ikaslearen ezaugarrietara egokituta daude.

BAI ☐ EZ ☐

2.–Edukiak.

–Edukiak helburuen proposamenarekin bat hautatu dira.

BAI ☐ EZ ☐

–Indarra duen araudiari lotuta daude.

BAI ☐ EZ ☐

–Hezkuntza komunitateko beste profesional batzuen parte-hartzea aurreikusi da.

BAI ☐ EZ ☐

3.–Jarduerak eta epeak.

–Jardueren programazioak proposatutako helburuak lortzen eta edukiak garatzen laguntzen du.

BAI ☐ EZ ☐

–Jarduerak hiru hilekoetan banatuta daude.

BAI ☐ EZ ☐

–Beste profesional batzuekin koordinatzeko bilerak aurreikusi dira.

BAI ☐ EZ ☐

4.–Ebaluazio prozedurak.

–Proposatutako helburu, eduki eta jarduerekin bat datoz.

BAI ☐ EZ ☐

–Epeak egokiak dira helburu, eduki eta jardueretarako.

BAI ☐ EZ ☐

.....(e)n, 2008koaren(e)an.

(Batzordeko kideen sinadura)

1513/2007 EBAZPENA, abenduaren 21ekoa, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko Giza Baliabideen zuzendariak emana, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzua erakunde autonomoan Kardiologiako barrutiko sendagile espezialista izateko bi lanpostu huts merezimendu-lehiaketa bidezko lekualdatzearen bitartez betetzeko deialdian onartu eta baztertu diren izangaien behin betiko zerrenda onesten duena.

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko zuzendari kudeatzailerak urriaren 18an emandako 1687/2007 Ebazpenaren bidez Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzua erakunde autonomoan Kardiologiako barrutiko sendagile espezialista izateko 2 lanpostu huts merezimendu-lehiaketa bidezko lekualdatzearen bitartez betetzeko deialdia onetsi zen. Deialdia 2007ko urriaren 31ko Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu zen, 136. zenbakian.

Baztertutako izangairik ez dagoela ikusirik, bidezkoa da deialdian onartu eta baztertu diren izangaien behin betiko zerrenda onestea.

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren Estatutuak onesten dituen uztailaren 3ko 45/2006 Foru Dekretuak eman dizkidan eginkizunak betez,

EBATZI DUT:

1. Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzua erakunde autonomoan Kardiologiako barrutiko sendagile espezialista izateko 2 lanpostu huts merezimendu-lehiaketa bidezko lekualdatzearen bitartez betetzeko deialdian onartu eta baztertu diren izangaien behin betiko zerrenda onestea:

–O-NOZko lekualdatze txanda.

Onartuak:

ABECIA OZCARIZ, ANA CARMEN
ELORZ ROMANO, CRISTINA
MARTINEZ BASTERRA, JOSE JAVIER

Baztertuak: inor ez.

2. Epaimahaiak kide hauek izanen ditu:

Mahaiburua: María Jesús Calvo Guitian andrea, Nafarroako Ospitaleko zuzendaria.

Ordezko mahaiburua: Begoña Goldaracena Tanco andrea, Bideko Ama Birjina Ospitaleko zuzendari medikoa.

Mahaikidea: Miguel Angel Imizcoz Zubigaray jauna, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko langileen ordezkariak izendatua.

Ordezko mahaikidea: María Luisa García San Martín andrea, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko langileen ordezkariak izendatua.

Idazkaria: José Joaquín Jaurrieta Díaz de Cerio jauna, Nafarroako Ospitaleko Langileriaren zuzendaria.

Ordezko idazkaria: Juan José Del Cura Temiño jauna, Bideko Ama Birjina Ospitaleko Langileriaren zuzendaria.

3. Ebazpen hau Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitara dadila agintzea.

4. Ebazpen hau jakinaraztea mahaikide titularrei, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko Deialdiak Tramitatze Unitateari eta Osasun Departamentuko Idazkaritza Tekniko Nagusiari, behar diren ondorioak izan ditzan.

Iruñean, 2007ko abenduaren 21ean.–Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko Giza Baliabideen zuzendaria, José María Ayerra Lazcano.

F0800107

45/2008 EBAZPENA, urtarilaren 17koa, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko Giza Baliabideen zuzendariak emana, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzua erakunde autonomoan Aurpegi eta Masailezurereko Kirurgiako Laguntza Ataleko buru izateko lanpostu huts bat oposizio-lehiaketa bidez betetzeko deialdian onartu eta baztertu diren izangaien behin betiko zerrenda onesten duena.

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko zuzendari kudeatzailerak, otsailaren 21eko 426/2007 Ebazpenaren bidez, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko Aurpegi eta Masailezurereko Kirurgiako Laguntza Ataleko buru izateko lanpostu bat oposizio-lehiaketa bidez betetzeko deialdia onetsi zuen. Deialdia 2007ko 36. Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu zen, martxoaren 23an.

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko Giza Baliabideen Zerbitzuko zuzendariak, apirilaren 27ko 524/2007 Ebazpenaren bidez, deialdian onartu eta baztertu diren izangaien behin-behineko zerrenda onetsi zuen.

Erreklamazioak aurkezteko epea bukatu, bidezkoa da deialdian onartu eta baztertu diren izangaien behin betiko zerrenda onestea.

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren Estatutuak onesten dituen uztailaren 3ko 45/2006 Foru Dekretuak eman dizkidan eginkizunak betez,

EBATZI DUT:

1. Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzua erakunde autonomoan Aurpegi eta Masailezurereko Kirurgiako Laguntza Ataleko buru izateko lanpostu huts bat oposizio-lehiaketa bidez betetzeko deialdian onartu eta baztertu diren izangaien behin betiko zerrenda, ondotik heldu dena, onestea:

–Txanda irekia

Onartuak:

BADA GARCIA, MIGUEL ANGEL
QUILEZ SARDA, ISABEL

Baztertuak: inor ez.

2. Epaimahaiak kide hauek izanen ditu:

Mahaiburua: Begoña Goldaracena Tanco andrea, Bideko Ama Birjina Ospitaleko zuzendari medikoa.

Ordezko mahaiburua: Fernando Boneta Beorlegui jauna, Bideko Ama Birjina Ospitaleko zuzendaria.

Mahaikidea: Joseba Santamaría Zuaga jauna, espezialitateko batzorde nazionalak izendatua.

Ordezko mahaikidea: Matías Cuesta Gil jauna, espezialitateko batzorde nazionalak izendatua.

Mahaikidea: Miguel Gorriaran Terreros jauna, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak izendatua.

Ordezko mahaikidea: Juan Luis Castiella Iribas jauna, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak izendatua.

Mahaikidea: José Antonio Arruti González jauna, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko langileen ordezkariak izendatua.

Ordezko mahaikidea: Javier Martín Rodríguez jauna, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko langileen ordezkariak izendatua.

Idazkaria: José María Ayerra Lazcano jauna, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko Giza Baliabideen zuzendaria.

Ordezko idazkaria: Gabriel Izpura Liberal jauna, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko Langileriaren eta Lan Harremanen zuzendariordea.

3. Oposizioaldiko lehenbiziko ariketa 2008ko urtarilaren 31n egingen dela adieraztea, 10:00etan, Bideko Ama Birjina Ospitaleko bilera gelan.

4. Ebazpen hau Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitara dadila agintzea.

5. Ebazpen hau igortzea mahaikide titularrei, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko Langileriaren Kudeaketa, Sarrera eta Barne Igoerarako Zerbitzura eta Deialdiak Tramitatze Unitatera, bai eta Osasun Departamentuko Idazkaritza Tekniko Nagusira ere, behar diren ondorioak izan ditzan.

Iruñean, 2008ko urtarilaren 17an.–Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko Giza Baliabideen zuzendaria, José María Ayerra Lazcano.

F0800885

1.3. BESTELAKO XEDAPENAK

1.3.3. Nahitaezko desjabetzeak

ERABAKIA, 2008ko urtarilaren 14koa, Nafarroako Gobernuak hartua, Jaurrietako Udaren "Jaurrietako sistema orokorraren exekuzioa" izeneko proiektuaren lanek ukitutako ondasun eta eskubideen okupazioa presakoa dela adierazten duena, nahitaez desjabetzeko.

Jaurrietako Udak 2007ko uztailaren 12an egindako osoko bilkuran hartutako Erabakiari jarraikiz, jendaurrean jarri ziren, hamabost egunez, aipatutako proiektua eta ukitutako ondasun eta eskubideen zerrenda.

Jendaurreko epea iraganda eta alegazioak ebatzita, Jaurrietako Udak, 2007ko urriaren 12ko Erabakiaren bidez (2007ko abenduaren 4ko Erabakiaren bidez aldatua), behin betikoz onetsi zuen aipatu proiektua.

Jaurrietako Udak desjabetzeak ukituko dituen ondasun eta eskubideen okupazioa presakoa dela deklaratzeko eskatu du, Jaurrietako Llana kalea zabaltzea presakoa dela adierazita. Kale hori zabalduta, zirkulatzeko gaur egun meharregia den puntu horretatik pasatzea erraztuko da eta, beraz, trafikoa egoera arriskutsuak saihestuko dira.

Nafarroako Gobernuak, Jaurrietako Udalak adierazi dituen arrazoiak ikusita, bidezkozat jo du desjabetze horrek ukitutako ondasun eta eskubideen okupazioa presakoa dela adieraztea.

Horrenbestez, txosten teknikoak eta juridikoak ikusita, balio justua ordaintzeko behar den kreditua atxiki dela egiaztatuta, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoko 57 b) artikulua bidez aitortu zaizkion eskumenen arabera, Nafarroako Gobernuak, Toki Administrazio kontseilariak proposatuta,

ERABAKI DU:

1. Nahitaezko Desjabetzeari buruzko Legearen 52. artikuluan xedatutakoari jarraituz, adierazten da presakoa dela "Jaurrietako sistema orokorraren exekuzioa" izeneko proiektuaren lanek ukitutako ondasun eta eskubideen okupazioa.

2. Erabaki hau Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzea, argitaratzen den egunetik ondorioak sortzeko, eta aditzera ematen da erabaki honek Administrazio bidea agortzen duela eta haren aurka, aukeran, berraztertze helegitea jartzen ahal dela Nafarroako Gobernuari zuzendua, argitaratu eta biharamunetik hilabeteko epean, edo bestela zuzenean Nafarroako Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, argitaratu eta biharamunetik bi hilabeteko epean.

Administrazio publikoek, berraztertze errekurtsoen ordez, aurretiko errekerimendua egin dezakete, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 44. artikuluan ezarritako moduan eta epeetan.

3. Jaurrietako Udalarri erabaki honen berri ematea.

Iruñean, 2008ko urtarilaren 14an.–Erakundeekiko Harremanetarako kontseilari eta Gobernuaren eleduna, idazkariaren ordez, *Alberto Catalán Higuera*.

F0800619

ERABAKIA, 2008ko urtarilaren 14koa, Nafarroako Gobernuak hartua, "Arazoak dauden zeharbideak kentzea: Lekunberriko saihesbidea-Albiasu" egiteko proiektuko lanek ukitutako ondasun eta eskubideen okupazioa presakoa dela adierazten duena.

Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilariak, ekainaren 5eko 81/2007 Foru Aginduaren bidez, "Arazoak dauden zeharbideak kentzea: Lekunberriko saihesbidea-Albiasu" izeneko proiektuak ukitutako ondasun eta eskubideen nahitaezko desjabetzearen prozedura ireki eta jendaurrean jarri zuen.

Ikusita, hobetu nahi den errepideak zirkulazio handia jasaten duela eta bide tarte horiek lehenbailehen aldatu behar direla, istripuak saihestu eta zirkulazioa hobetuko bada, komenigarria da lanak ahalik eta lasterren egitea; beraz, behar diren lurraz eskuratzeko tramiteak arindu ahal izateko, beharrezkoa da ondasun eta eskubide ukituen okupazioa presakotzat jotzea, hori guztia Nahitaezko Desjabetzapenari buruzko Legearen 52. artikuluan ezarritakoarekin bat.

Horrenbestez, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoko 57.b) artikulua eta Nahitaezko Desjabetzeari buruzko Legearen 52. artikulua emandako ahalmenak erabiliz, Nafarroako Gobernuak, Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilariak proposatuta,

ERABAKI DU:

1. "Arazoak dauden zeharbideak kentzea: Lekunberriko saihesbidea-Albiasu" izeneko proiektuaren lanek ukitutako ondasun eta eskubideen okupazioa presakoa dela adieraztea.

2. Ukitutako ondasun eta eskubideak eskuratzeko kalkulatu den gastua 100.000,00 eurokoa da eta 2008ko aurrekontuko "Azipiegituretarako lurren desjabetzea" izeneko 610000-61340-6001-453200 kontusailaren kargura ordainduko da. Gastu hori egin ahal izateko, aurrekontuetan behar adinako kreditu egokia egon beharko du.

3. Erabaki hau Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzea, argitaratzen den egunetik ondorioak sortzeko, eta aditzera ematen da erabaki honek Administrazio bidea agortzen duela eta haren aurka, aukeran, berraztertze helegitea jartzen ahal dela Nafarroako Gobernuari zuzendua, argitaratu eta biharamunetik hilabeteko epean, edo bestela zuzenean Nafarroako Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, argitaratu eta biharamunetik bi hilabeteko epean.

Administrazio publikoek, berraztertze errekurtsoaren ordez, aurretiko errekerimendua egin dezakete, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 44. artikuluan ezarritako moduan eta epeetan.

4. Erabaki hau jakinaraztea Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Departamentuko Proiektu, Trenbide eta Obra Hidraulikoen Zerbitzuko Desjabetze Atalari, Idazkaritza Nagusi Teknikoko Kudeaketa Ekonomikoaren Bulegoari eta Ekonomia eta Ogasun Departamentuak departamentu horretan duen Kontu-Hartzailetza Delegatuari.

Iruñean, 2008ko urtarilaren 14an.–Erakundeekiko Harremanetarako kontseilari eta Gobernuaren eleduna, idazkariaren ordez, *Alberto Catalán Higuera*.

F0800642

1.3.6. Beste batzuk

2679/2007 EBAZPENA, abenduaren 31koa, Ingurumenaren eta Uraren zuzendari nagusiak emana, Ingurumen baimen integragatu ematen duena Caparrosoko udal mugapean zerri-ustiategi bat jartzeko jarduerarako (gizendegia). Jardueraren titularrak Rosa Inés Fuente Echeverría andrea da.

Eginda dagoen instalazio hori Kutsaduraren aurkako aurreneurri eta kontrol integratuei buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Foru Legearen I. eranskineko 9.3.b) epigrafean jasota dago, "Hegaztien edo zerrien hazkuntza intentsiborako instalazioak, 30 kg-tik gorako gizentzeko zerrientzat 2.000 toki baino gehiago dituztenak" izenekoan. Horren ondorioz, Ingurumen baimen integratuko araubidearen menpe dago.

Halaber, instalazio hori Ingurumena babesteko esku-hartzeari buruzko martxoaren 22ko 4/2005 Legearen 2B eranskineko 9.1 c) epigrafean dago jasota, "Hegaztien edo zerrien hazkuntza intentsiborako instalazioak, 30 kg-tik gorako gizentzeko zerrientzat 2.000 toki baino gehiago dituztenak" izenekoan. Horren ondorioz, Ingurumen baimen integratuko araubidearen menpe dago.

Espedientea Ingurumena babesteko esku-hartzeari buruzko martxoaren 22ko 4/2005 Foru Legean adierazitakoari jarraikiz tramitatu da, bertan agindutako txostenak prestatuak.

Egin den tramitazio administratiboaren laburpena ebazpen honen V. eranskinean dago.

Ingurumenaren arloko eskumenak Ingurumenaren eta Uraren zuzendari nagusiari, Biodibertsitatea Zaintzeko Zerbitzuko zuzendariari eta Ingurumen Kalitatearen Zerbitzuko zuzendariari eskuordetzen dizkien urriaren 10eko 426/2007 Foru Aginduaren bidez eskuratu ditudan ahalmenak erabiliz,

EBATZI DUT:

1. Ingurumen baimen integratua ematea Caparrosoko udal mugapean, 4. poligonoko 231. lurzatian, dagoen zerri-gizendegi baten jarduerarako. Ustiategiaren titularrak Rosa Inés Fuente Echeverría andrea da.

2. Instalazio hori lurzoru urbanizaezinean jartzeko baimena ematea, Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legean xedaturikoaren arabera.

3. Jarduera hori Ingurumen baimen integratuaren eskaeraren oinarritzko proiektuan eta 1118/06 (AAI) espediente administratiboko gainerako agirietan aipatzen diren baldintzei jarraikiz garatu beharko da, betiere ebazpen honen II., III. eta IV. eranskinetako neurriak betetz.

4. Ingurumen arloko baimen honek zortzi urteko indarraldia du. Iraungi baino gutxienez ere hamar hilabete lehenago, titularrak baimena berritzeko eskatu beharko du, Ingurumena babesteko esku-hartzeari buruzko martxoaren 22ko 4/2005 Foru Legea garatzeko Erregelamenduaren 30. artikuluan xedatutakoarekin bat. Erregelamendu hori abenduaren 28ko 93/2006 Foru Dekretuak onetsi zuen.

5. Jarduera edonola ere aldatzeko, titularrak aldez aurretik Ingurumenaren eta Uraren Zuzendaritza Nagusiari jakinarazi beharko dio. Arrazoiak emanda, adierazi beharko du aldaketa funtsezkoa, nabarmena edo garrantzirik gabea den, Ingurumena babesteko esku-hartzeari buruzko martxoaren 22ko 4/2005 Foru Legea garatzeko Erregelamenduan xedatutakoarekin bat.

6. Instalazioa Nafarroako Hondakin Toxiko eta Arriskutsuen Sortzaile Txikien Erregistroan inskribatzea, 312/1993 Foru Dekretuan xedaturikoarekin bat. PP/1779/NA/2007 zenbakia izanen du. Hondakin arriskutsuak sortzen dituen jarduera A102 (3) da, hots, zerri ustiatagia, hondakin toxiko eta arriskutsuei buruzko maiatzaren 14ko 20/1986 Oinarritzko Legea betearazteko Erregelamenduko I. eranskineko 6. taularen arabera. Erregelamendu hori uztailaren 20ko 833/1988 Errege Dekretuaren bidez onetsi zen. Sortzen ahal dituen hondakin arriskutsuak ingurumen baimen integratu honen III. eranskinean ageri dira. Hondakin arriskutsuen produkzioan egiten diren aldaketa guztiak jakinarazi beharko dira, erregistratzeko eta, bidezkoa bada, aipatu III. eranskin horretan sartzeko.

7. Abeltzaintza instalazio horretan simaurrak sortu eta kudeatzeko plana onetsi da, IV. eranskinean azaltzen dena.

8. 2008ko urtarilaren 15a baino lehen, titularrak irekitzeko baimena eskatu beharko du, martxoaren 22ko 4/2005 Foru Legea garatzeko Erregelamenduen 40. artikuluan eta ebazpen honen II. eranskinean ezartzen diren baldintzetan xedatutakoarekin bat. Aipatutako erregelamendua abenduaren 28ko 93/2006 Foru Dekretuaren bidez onetsi zen.

9. Departamentu honek araudi sektorial aplikagarriaren ondorioz baimenaren xede den jarduera edo instalaziorako emandako baimenak eze gainerako administrazio egintzak indarrak gabe uztea, betiere ebazpen honetan espresuki haiei buruz egindako adierazpena badago.

10. Ebazpen hau Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzea.

